PEC :		RES :	X	MES		MOT		RET :		MET:	
-------	--	-------	---	-----	--	-----	--	-------	--	------	--

Ekintza kodea: 19-HEFA-RES-51

Mugikortasunetik bueltatzen diren ikasleekin bilera lehen lauhilekoa

Bilera hau beraien esperientzia jasotzeko eta gure lana hobetu ahal izateko izango da

Arduradun-postua: Vicedecanato de Movilidad y Prácticas de Cooperación

Jatorria: Agentzien kanpo txostenak

Itxiera data: 2022/02/03

Hartutako neurriak

Ekintza hau ixten da irekita dagoen beste ekintza baten baitan sartuta dagoelako.

PEC :		RES :	X	MES		MOT		RET :		MET:	
-------	--	-------	---	-----	--	-----	--	-------	--	------	--

Ekintza kodea: 20-HEFA-MES-5

Erasmus hitzarmen berriak egin 2022-27 bitarterako

Europa osoko hitzarmenak 21 ikasturtean amaitzen dira eta berriak sortu behar dira, eta ditugunak berregin

Arduradun-postua: Vicedecanato de Movilidad y Prácticas de Cooperación

Jatorria: Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2022/02/03

Hartutako neurriak

Ekintza hau ixten da beste ekintza baten baitan dagoelako, azken ekintza hau zabaldik dagoelarik.

PEC :	X	RES :		MES	X	MOT		RET :		MET:	
-------	---	-------	--	-----	---	-----	--	-------	--	------	--

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2021/2022

3.5., Mugikortasun programak

Ekintza kodea: 20-HEFA-MES-3

Masterretako ikasleen mugikortasun aukerak aztertu

Fakultatean eskaintzen diren Masterretako ikasleek mugikortasun programetan parte hartu dezaten aztertu Masterretako zuzendariekin batera

Arduradun-postua: Vicedecanato de Movilidad y Prácticas de Cooperación

Jatorria: Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2022/05/31

Hartutako neurriak

Bilerak izan dira masterreko arduradunekin interesak jasotzeko. NHBrekin Erasmus programaren eta gure fakultateko egutegi akademikoa aztertu ondoren, ohiko ohiko Erasmus egonaldi luzeetan ezingo da parte hartu. Bai, ordea, mugikortasun motzean, BIP programetan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterrak, adibidez, BIP batean parte hartuko du 22-23 ikasturtean.

PEC :	X	RES :	MES	X	MOT	RET :	MET:
-------	---	-------	-----	---	-----	-------	------

Ekintza kodea: 21-HEFA-MES-72

Mugikortasun programen kudeaketarako eskuliburuak eratzea

Mugikortasun-programen konplexutasuna dela eta, mugikortasuna kudeatzeko eskuliburuak eratzea proposatzen da, eguneroko lana zehazteko.

Arduradun-postua: Vicedecanato de Movilidad y Prácticas de Cooperación

Jatorria: Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2022/05/22

Hartutako neurriak

Eskuliburuak erabilgarriak suertatzen dira egunerokotasunerako.

PEC :	X	RES :	MES	X	MOT	RET :	MET:
-------	---	-------	-----	---	-----	-------	------

Ekintza kodea: 21-HEFA-MES-71

Praktikak Nazioarteko Programen bidez aztertzea

Ohiko Mugikortasun programetaz aparte (Erasmus, AL, OD eta SICUE), bestelako praktika programak praktikak atzerrian burutzeko programak aztertu: Gaztenpatia, Erasmus+ Praktikak, etab.

Arduradun-postua: Vicedecanato de Movilidad y Prácticas de Cooperación

Jatorria: Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2022/06/30

Hartutako neurriak

Programen azterketa egini da 21/22 ikasturtean eta Gaztenpatia programan parte hartuko dugu 22/23 ikasturtetik aurrera, HEFA fakultatean. Erasmus+ Praktikak dagokien egutegian zabalduko dira ikasleen artean, Errektoreordetzak kudeatzen dituelarik. Fakultatea mediatzailea izango da azken honetan.

PEC :	X	RES :	MES	X	MOT	RET :	MET:
-------	---	-------	-----	---	-----	-------	------

Ekintza kodea: 19-MANTSO-MET-39

Destinos Erasmus (Gizarte Antropologia Unibertsitate Masterra)

Covid 19ko pandemia egoera dela eta 2019-20an ikasturte honetan master mailako Erasmus hitzarmenak lotzea aurreikusita bagenuen ere, osasun neurriak eta nazioarteko mugikortasunak dituen mugak direla eta aurreragorako uztea erabaki dugu.

Arduradun-postua: Vicedecanato de Movilidad y Prácticas de Cooperación

Jatorria: Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2021/12/31

Hartutako neurriak

Erasmus hitzarmenak 2021-22tik aurrera lotzeko lehen prospekzioak abiatuta.

Titulazioak:

MANTSO

PEC :	X	RES :	MES		MOT	RET :	MET:	X
-------	---	-------	-----	--	-----	-------	------	---

3.6., Gradu/ Master Amaierako Lanak

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2021/2022

3.6., Gradu/ Master Amaierako Lanak

Ekintza kodea: 20-HEFA-MES-6

9.5 notatik gorako GRALen publikazioa ADDIn

Ikasle egresatuak hala eskatzen badute eta 9.5 edo nota gehiago lortu badute GRAL ebaluazioan, beraien GRALa UPV/EHUko ADDI plataforman publikatuko da. Horretarako, baimen inprimakiak eratu dira.

Arduradun-postua: Vicedecanato de Organización Académica y Alumnado de HEFA-I

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2022/07/01

Hartutako neurriak

Egoera aztertu da eta protokoloa sortu da

PEC :	RES :	MES	X	MOT	RET :	MET:
-------	-------	-----	---	-----	-------	------

Ekintza kodea: 20-HEFA-MES-41

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Practicum III eta Gradu Amaierako Lan uztartuen eskaintza-esleipena

Azken urteetan zenbait Gradu Amaierako Lan ikastetxe zehatzekin elkarlanean eskaini dira. Horretarako, ikasleek GRAL uztartua aukeratzen zuten, eta horrek, praktikak ikastetxe jakinetan egitea zekarren. Aurten, PIIIa automatikula bidez aukeratzeko asmoa izanik, GRAL zuzendariok Batzordeei proposamena adierazteko txantiloia eraiki da. Batzordeek onartu eta matrikulan ikastetxeak GRALa uztartuta duela azal daitezten. Ondoren, GRAL jakin horiek eskaintza-zerrendatik ezabatuko direlarik.

Arduradun-postua: Comisión de TFG

Jatorria: Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2021/10/22

Hartutako neurriak

Ikasleei idatzi eta deitu egin behar izan zaie banan bana uztartuak aukeratu dituztenen kasuan, espedientearen batez bestekoa kontuan izanik, zegokienari esleitu ahal izateko eta besteei beste bat aukeratu zezatela esateko.

Sistema berrikusi behar da datorren urterako edo uztarketa behin ikasleek ikastetxea esleitura dutenean egiteko modua bilatu.

\\gordetalde.ehu.es\grupos\$\HEFAkudeaketa\00. UNIKUDE\3. IRAKASKUNTZAREN KOORDINAZIOA ETA GARAPENA\3.3.

Derrigorrezko kanpo praktikak.

Prozedurak eskatu duen momentuan burutu da.

PEC :	X	RES :	MES	X	MOT	RET :	MET:
-------	---	-------	-----	---	-----	-------	------

Ekintza kodea: 18-HEFA-MES-30

Irakasleek GRAL-en eskaintza GAUR-era igotzea.

Pedagogia eta Gizarte Hezkuntzako graduen GRAL-en eskaintza dekanotzako idazkariak GAURera igotzen du. Gradu horietako GRAL koordinatzaileek eta Akademia Antolakuntzarako Dekanordeak pentsatzen dugu egokiago dela irakasleek beraiek egitea. Horrek aukera gehiago ematen die irakasleei ongi zehazteko zeintzuk diren GRAL-en helbururuak.

Arduradun-postua: Vicedecanato de Practicum y TFG de HEFA I

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2021/09/30

Hartutako neurriak

2021/2022 ikasturtean martxan jarri da, ekainaren 30ean bidali zen mezua. Datorren urtera begira lehenago planteatuko dugu.

\\gordetalde.ehu.es\grupos\$\HEFAkudeaketa\00. UNIKUDE\3. IRAKASKUNTZAREN KOORDINAZIOA ETA GARAPENA\3.6.

Gradu Master amaierako lanak

PEC :	RES :	MES	X	MOT	RET :	MET:
-------	-------	-----	---	-----	-------	------

Ekintza kodea: 18-HEFA-MES-31

Sailen arteko GRAL-en zama berbanatzea

MIDE sailetik eskatzen digute berrikustea nola banatzen den sailen artean GRAL-en zama Pedagogia eta Gizarte Hezkuntzako graduetan.

Arduradun-postua: Departamentos

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2021/09/17

Hartutako neurriak

Alde batetik, berraztertu da zein den sail bakoitzak gradu horietan ematen dituen kredituen kopurua. Ikusten da ez dela gehiegi aldatu azken ikasturteetan eta bat egiten duela orain arte egiten dugun GRAL-en zamaren banaketarekin.

Beste aldetik, hurrengo ikasturteetan sailen fusioa etorriko dela kontuan hartuta, dekanotzatik pentsatzen dugu egokiago dela sailen fusien ostean berbanaketa egitea.

Orain, 2021eko irailean, ikusi da egindako fusioak ez duela sail bakoitzaren zamaren ehunekoan eraginik.

Beraz, oraingo banaketari eutsiko zaio, dagoen moduan.

PEC :	RES :	MES	X	MOT	RET :	MET:
-------	-------	-----	---	-----	-------	------

"4. Aurreko ikasturtean egindako ekintzak"

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2021/2022

3.6., Gradu/ Master Amaierako Lanak

Ekintza kodea: 21-HEFA-MET-18

HEFAko ikasleei zuzendutako Gradu Amaierako Lana egiteko prestakuntza saioa

Haur eta Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztiei, Practicumera joan aurretik, "Nola egin dezaket GRALa? Ikerketa-baliabideak eta aholkuak" saioa eskaintzea pentsatu da, guztiek, abiapuntu bera izan ahal izan dezaten. Bertan, testuinguru-sarreraz gain, marko teorikoa, bilaketa bibliografikoak egiteko tresnak, ikerketa-galdera, zenbait tresna metodologiko eta abar eskainiko zaizkie zenbait irakasleren eskutik. Saioa teoriko-praktikoa izango da eta adibideen bidezkoa.

Arduradun-postua: Comisión de TFG

Jatorria:Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2021/11/15

Hartutako neurriak

50 ikaslelik gora etorri dira eta asebetetze-inkestan balorazio ona izan du. Inkestan jasotako oharrek kontuan hartuko dira aurrerantzean beste zenbait saio antolatzeko: eskuhartzeari buruzkoak, ikasturtearen hasieran, arratsaldean, online... Era berean, HEFA osoko esperientzia izan daitekeela pentsatu da.

Titulazioak:

GPRIMA GINFAN

PEC :	X	RES :	MES	MOT	RET :	MET:	X
-------	---	-------	-----	-----	-------	------	---

Ekintza kodea: 21-HEFA-MET-19

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako GRALen poster erakusketaren inguruko iritzia

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Graduak martxan jarri zirenetik HEFAN ikasleek, GRALaren ebaluazioaren atal gisa, poster bat egin eta erakusketan jarri behar izan dute. Posterra era ezberdinetan aurkeztu izan da urteetan zehar eta garrantzia galzten joan dela antzeman da. Hori dela-eta, hausnarketa abiarazi da GRAL zuzendariei galdeketa-formularioa helaraziz.

Arduradun-postua: Comisión de TFG

Jatorria:Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2022/07/04

Hartutako neurriak

GRAL zuzendarien posterraren inguruko iritzia kontuan izanda, GRAL Batzordea 2022ko urtarrilean bilduko da gai bakarrarekin, posterraren ustiaketa egokirako proposamen bat egiteko asmoz. Aztertu eta hausnartu ondoren, orain arte bezala jarraitzea erabaki da.

\\gordetalde.ehu.es\grupos\$\HEFAkudeaketa\00. UNIKUDE\3. IRAKASKUNTZAREN KOORDINAZIOA ETA GARAPENA\3.6. Gradu Master amaierako lanak

Titulazioak:

GPRIMA GINFAN

PEC :	X	RES :	MES	MOT	RET :	MET:	X
-------	---	-------	-----	-----	-------	------	---

Ekintza kodea: 21-HEFA-MET-68

Irakasle Berrientzako GIDA

GRADU AMAIERAKO LANA BURUTZEKO IRAKASLE BERRIENTZAKO GIDA, Gida honetan agertzen dira hasiberrientzako (eta berriak ez direnei ere ondo datorkie) lehenengo pausuak GRALa ondo planteatzeko eta ondo bideratzeko EHUn dauden baliabideak erakutsiz

Arduradun-postua: Vicedecanato de Practicum y TFG de HEFA I

Jatorria:Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2021/12/22

Hartutako neurriak

GIDA sortu da, \\gordetalde.ehu.es\grupos\$\HEFAkudeaketa\00. UNIKUDE\3. IRAKASKUNTZAREN KOORDINAZIOA ETA GARAPENA\3.6. Gradu Master amaierako lanak

Titulazioak:

GPEDAG GESOCI

PEC :	X	RES :	MES	MOT	RET :	MET:	X
-------	---	-------	-----	-----	-------	------	---

4.- GIZA BALIABIDE ETA ZERBITZUEN KUDEAKETA

4.1., IIP/AZPren kudeaketa

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2021/2022

4.1., IIP/AZPren kudeaketa

Ekintza kodea: 21-HEFA-MES-70

Fakultateko Administrazio burua berritzea

Azken urteetan egon den pertsonak kargua bere borondatez utzi du eta bere ordeaz arituko denaren izendapena egin behar da.

Arduradun-postua: Decano/a

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2021/11/02

Hartutako neurriak

Postu horrek dituen zeregin eta funtzioen katalogoa eskuratu.

PEC :	RES :	MES	X	MOT	RET :	MET:
-------	-------	-----	---	-----	-------	------

Ekintza kodea: 21-GPEDAG-RET-45

Docentiaz programa

DOCENTIAZ programan irakasleen parte-hartzea sustatzea gomendatzen da.

Arduradun-postua: Departamentos

Jatorria: Agentzien kanpo txostenak

Itxiera data: 2022/01/25

Hartutako neurriak

Tituluaren koordinaziotik bilera eta graduarekin lotura duten guneeetan irakasleei mezu hau helaraziko zaie.

Titulazioak:

GPEDAG

PEC :	RES :	MES		MOT	RET :	X	MET:
-------	-------	-----	--	-----	-------	---	------

Ekintza kodea: 21-GPEDAG-RET-44

Irakasle eta ikertzaile kopurua handitzea

Irakasle eta ikertzaileen kopurua handitzea komeni da, irakaskuntza-zamari behar bezala aurre egin ahal izateko.

Arduradun-postua: Vicerrectorado de Personal Docente e Investigador

Jatorria: Agentzien kanpo txostenak

Itxiera data: 2022/01/25

Hartutako neurriak

Irakasleen errektoreordetzatik kudeatu beharreko gomendioa da.

Titulazioak:

GPEDAG

PEC :	RES :	MES		MOT	RET :	X	MET:
-------	-------	-----	--	-----	-------	---	------

4.2., IIP/AZPren formakuntza

Ekintza kodea: 21-GPEDAG-RET-43

Irakasleen ibilbide akademikoa

Proiektuetan eta ikerketa jardueran parte hartzea sustatzen jarraitzea gomendatzen da, seiurtekoen kopurua handitzeko.

Arduradun-postua: Gabinete de Formación y Planificación (UPV/EHU)

Jatorria: Agentzien kanpo txostenak

Itxiera data: 2022/01/25

Hartutako neurriak

Tituluaren koordinaziotik bilera eta graduarekin lotura duten guneeetan irakasleei mezu hau helaraziko zaie.

Titulazioak:

GPEDAG

PEC :	RES :	MES		MOT	RET :	X	MET:
-------	-------	-----	--	-----	-------	---	------

5.- EBALUAZIOA ETA HOBEKUNTZA

5.1., Titulazioen eta Kudeaketa Sistemaren ebaluazioa eta hobekuntza

"4. Aurreko ikasturtean egindako ekintzak"

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2021/2022

5.1., Titulazioen eta Kudeaketa Sistemaren ebaluazioa eta hobekuntza

Ekintza kodea: 19-HEFA-RES-67

Kalitate- politika eta helburuak zehatzago definitzea, ikastetxearen/ unibertsitatearen helburu estrategikoekin bat datozela ziurtatuz.

Bigarren Hezkuntzako Masterraren Akreditazioan (2019) eginiko gomendioa.

Arduradun-postua: Equipo Decanal

Jatorria: Agentzien kanpo txostenak

Itxiera data: 2021/12/16

Hartutako neurriak

Dekanotza Taldeak Ildo Estrategikoak 2021-2023 dokumentuan zehaztutako ildoekin bat datorren Kalitate Politika definitu du 2021eko azaroan eta Fakultateko Batzarrak onartu egin du 2021eko abenduan

PEC :	RES :	X	MES	MOT	RET :	MET:
-------	-------	---	-----	-----	-------	------

Ekintza kodea: 21-HEFA-MES-3

Harrera Ekitaldien ebaluazioa

Lehendabiziko mailako ikasleentzako Harrera Ekitaldiak ebaluatzeko mekanismoak martxan jarriko dira: batetik, ikasleek beraiek betetzeko asebetetze inkestak eta, bestetik, Dekanotza Taldearen beraren barne ebaluazioa

Arduradun-postua: Vicedecanato de Desarrollo y Responsabilidad Social

Jatorria: Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2022/02/03

Hartutako neurriak

2021eko irailean antolatutako Harrera Ekitaldietan hobekuntza bat gehitu dugu ikasleei zuzendutako asebetetze inkestei dagokienez. Online inprimaki bat sortu dugu ikasleek Harrera Ekitaldiekiko beren iritzia eman zezaten eta informazioa hobeto sistematizatzeko.

PEC :	X	RES :	MES	X	MOT	RET :	MET:
-------	---	-------	-----	---	-----	-------	------

Ekintza kodea: 19-MPROSE-RET-54

Mekanismo sistematikoak eta eraginkorrak jarri behar dira martxan, egresatutako pertsonen laneratzeari buruzko informazio objektiboa eta fidagarria lortzeko.

Bigarren Hezkuntzako Masterraren Akreditazioan (2019) jasotako NAHITAEZko gomendioa

Arduradun-postua: Responsable del Máster Universitario en Formación del Profesorado de Educación Secundaria Obligatoria y Bachillerato, Formación Profesional y Enseñanzas de Idiomas

Jatorria: Agentzien kanpo txostenak

Itxiera data: 2022/02/04

Hartutako neurriak

Dekanotza Talde berriak bere gain hartuko du aurreko Dekanotza Taldeak sortu zuen ekintza.

Egresatuei inkesta espezifiko bat egiteko prozedura martxan jartzeko gogoeta prozesua indarrean jarriko dugu. Unibertsitateak abian jarri ditu, 2017-2018 ikasturteaz geroztik, unibertsitate-masterretako ikasle egresatuen laneratzeari buruzko datu fidagarriak lortzeko mekanismoak, bai eta graduatutako ikasleen gogobetetasunari buruzkoak ere.

Datu horiek lortzeko, beste hitzarmen bat sinatu da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin, lan-merkatuan sartzeari buruzko informazio-sistema bat eta unibertsitateko egresatuen hezkuntza- eta enplegu-politikak garatzeko.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, urriaren 13ko 3/2011 Legeak sortua, administrazio-izaerako erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari atxikita dagoena, nortasun juridiko propioa eta bere helburuak betetzeko jarduteko gaitasun osoa dituena, eta, bitartekaritza kudeatzea eta enplegu-politika aktiboak gauzatzea du eginkizun, besteak beste. Erakunde horrek laneratzeari buruzko inkestak egiteak bermatu egiten du independentzia osoz egingo direla, eta informazio objektibo eta fidagarria emango direla.

Hitzarmen berri honen bidez, UPV/EHUren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren artean datuak komunikatzeko eta tratatzeko prozedura ezartzen da, eta erakunde hori arduratuko da graduako eta graduondoko egresatuei laneratzeari eta gogobetetzeari buruzko inkestak egiteaz.

UPV/EHUK titulazioaren araberako azken datuak sartzten ditu jarraipen-autotxostenetan eta akreditazioa berritzeko eta autoebaluazio-txostenetan 2019az geroztik. Datu horiek publikoak dira master bakoitzaren webguneko "Akreditazioa" atalean, eta urtero ematen jarraituko da hurrengo promozioei begira. Hala ere, ez da emaitzarik jaso 5 erantzun baino gehiago lortu ez dituzten titulazioen txostenetan, datu pertsonalen babesa babesteko.

(Ikus masterreko laneratzeari buruzko datuak adierazleentzako taulako laneratzearen atalean, 2018-2019ko jarraipen-autotxostenetan).

Titulazioak:

MPROSE

PEC :	RES :	MES	MOT	RET :	X	MET:
-------	-------	-----	-----	-------	---	------

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2021/2022

5.1., Titulazioen eta Kudeaketa Sistemaren ebaluazioa eta hobekuntza

Ekintza kodea: 20-HEFA-RET-79

Uzte-tasaren datuei buruzko hausnarketa eta hobekuntza neurriak

Uzte-tasaren datuei buruzko hausnarketa bat egitea eta adierazle hori hobetzeko beharrezkoak diren neurriak ezartzea gomendatzen da

Arduradun-postua: Coordinadores de Grado

Jatorria: Agentzien kanpo txostenak

Itxiera data: 2022/06/30

Hartutako neurriak

2021-22 ikasturtean egin genuen gaiaren azterketa. Uzte-tasa ulertzeko arrazoiaren artean bi gailentzen dira: (1) Antropologia Filosofia ikasketetara sartzeko sarbide gisa erabiltzen dela (2) lehen mailan antropologia ikasgai gutxi daudenez beste unibertsitate batzuetara leku aldaketak.

Hobekuntza neurriak dira, besteak beste, beste eremu batzuetan proposatu ditugun lehen mailako lan-taldea eta practicumaren zein profesionalizazioaren gaineko lanketak.

Bestelako hobekuntza neurriei dagokionez, neurri asko ez daude gure esku. Dena den, informazio hau baliagarria zaigu etorkizunerako, eta bereziki titulazioaren etorkizuneko diseinua birpentsatzeko.

Titulazioak:

GANTRO GFILOS

PEC :	RES :	MES	MOT	RET : X	MET:
-------	-------	-----	-----	---------	------

5.3., IIPren irakaskuntzaren ebaluazioa

Ekintza kodea: 15-MANTSO-MET-1

Irakasleen jardueraren ebaluaketa

Irakasleen jardueraren ebaluaketarekin 2015-16 eta 2016-17az geroztik izandako arazoen jarraipena. Masterreko ikasleek uko egin zioten irakasleak ebaluatzen inkestak betetzeari. Erregistro bidez, 2015ean idatzi bat zuzendu zieten orduko IEZ, MDRE eta Gradu eta graduondoko errektoreei. Ondoko ikasturtean berriro ere idatzi bat bideratu zuten, aurrekoa erantzunik gabe zegoela eta. 2017an IEZek ikasleen ordezkari zen I. Minerri erantzun zion, besteak beste gaia aztertuko zutela. 2020ko martxoan Masterreko batzorde akademikoak berriro ere IEZera jo zuen, masterreko irakasleak ikasleen aldetik hainbat ikasturtez ebaluatu gabe jarraitzen baitzuten, eta gaiaren inguruko erantzun formalik jaso gabe.

Arduradun-postua: Servicio de Evaluación Docente (SED) (UPV/EHU)

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2022/02/04

Hartutako neurriak

Ikasleek helarazitako gutuna (2015-1-12)

IEZera 2020-03-26ean bideratutako e-maila.

IEZek 2020-04-04an bidalitako erantzuna.

IEZ-ekin harremanetan jarraitu dugu.

2021ean inkestak pasatu dira eta ikasleek, hala hautatu badute, bete dituzte.

Titulazioak:

MANTSO

PEC :	RES :	MES	MOT	RET :	MET: X
-------	-------	-----	-----	-------	--------

6.- KOMUNIKAZIOA ETA GIZARTE ERANTZUNKIZUNA

6.1., Komunikazioa eta gizarte proiektzioa

Ekintza kodea: 21-HEFA-MES-73

HEFAren sare sozialak

HEFAren Komunikazio Planean (Komunikazio Plana, 2021-2025), informazioa zabaltzeko kanalak aztertzerakoan, Dekanotza Taldeak erabaki du sare sozialen bat sortzea eta erabiltzea. Zehazki, HEFAren Twitter kontua sortuko dugu.

Arduradun-postua: Vicedecanato de Desarrollo y Responsabilidad Social

Jatorria: Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2021/10/01

Hartutako neurriak

HEFAren web orrian fakultatearen Twitter kontua sortu dugu.

PEC : X	RES :	MES X	MOT	RET :	MET:
---------	-------	-------	-----	-------	------

"4. Aurreko ikasturtean egindako ekintzak"

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
 Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2021/2022

6.1., Komunikazioa eta gizarte proiektzioa

Ekintza kodea: 20-HEFA-MES-58

HEFAren web orria berrantolatu

HEFAren Komunikazio Planaren oinarria zehaztu ondoren, HEFAren web orriko hainbat ataletako informazioa osatzeko edo eskuragarriago jartzeko beharra ikusten dugu. Zehazki, honako atal hauek: Fakultatea atalaren barruan Gobernu-organoak; Kalitatearen Kudeaketa. Informazio erabilgarriaren barruan Covid-19; Gela eta Guneen erreserbak. Mugikortasunaren atala. Practicumaren atala. Ikerketa eta Transferentziaren atala. Eta Albisteak. sare soziala eta ekitaldien atala

Arduradun-postua: Vicedecanato de Desarrollo y Responsabilidad Social

Jatorria: Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2021/12/20

Hartutako neurriak

Informazioa osatzeko eta eskuragarriago jartzeko beharra zuten web orriko atalen arduradunek, HEFAko Multimedia Sistemaren Teknikari Espezialistarekin batera, elkarrekin koordinatuta egingo dituzte aldaketok.

PEC :	X	RES :	MES	X	MOT	RET :	MET:
-------	---	-------	-----	---	-----	-------	------

Ekintza kodea: 21-HEFA-MES-74

HEFAren web orrian bisita birtualak gehitu

HEFAren web orrian sartuta, eraikina eta eraikinak dituen zerbitzuak ezagutu ahal izateko, bi eraikinen bisita birtualak gehituko ditugu

Arduradun-postua: Vicedecanato de Desarrollo y Responsabilidad Social

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2021/12/20

Hartutako neurriak

UPV/EHUren hainbat fakultatetan dagoeneko badituzten 360 gradutako bisita birtualak sortuko ditugu eta gure web orrian jarri, HEFAren eraikinak eta zerbitzuak web orritik bertatik ezagutarazteko

PEC :		RES :	MES	X	MOT	RET :	MET:
-------	--	-------	-----	---	-----	-------	------

Ekintza kodea: 18-HEFA-MES-20

Komunikaziorako estrategia plana definitu eta garatu

Komunikazio estrategia hobetzeko diagnosia egin, eta baliabideak hobetu edo berritu

Arduradun-postua: Vicedecanato de Desarrollo y Responsabilidad Social

Jatorria: Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2022/02/03

Hartutako neurriak

HEFAk zehaztu du Komunikazio Planaren oinarria: Komunikazio Plana, 2021-2025 izenekoa. Aurrera begira, oinarri hau gehiago garatzea komeni da.

PEC :	X	RES :	MES	X	MOT	RET :	MET:
-------	---	-------	-----	---	-----	-------	------

Ekintza kodea: 20-HEFA-MES-34

Oihenart Aforismoen X. Lehiaketa antolatu

Oihenart Aforismoen X. Lehiaketaren deialdia zabaldu, jasotako proposamenak aztertu eta saridunak saritu

Arduradun-postua: Vicedecanato de Desarrollo y Responsabilidad Social

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2021/12/20

Hartutako neurriak

Dekanotza Taldeak, Donostiako Udalaren laguntzarekin batera, Oihenart Aforismoen X. Lehiaketa antolatu du. Epaimahaikideen erabakiaren ondoren, deialdiaren irabazleen izenak aktan jaso dira, fakultatearen informazio kanalen bidez zabaldu dira eta sariak 2021eko HEFAren Egunean banatu zaizkie.

PEC :		RES :	MES	X	MOT	RET :	MET:
-------	--	-------	-----	---	-----	-------	------

Ekintza kodea: 20-HEFA-MES-33

Web orriko hizkuntza zuzenketa

Web orriko hizkuntza egokitasuna hobetzeko ekintza abiatuko da. Horretarako Euskara Zerbitzuari zuzenketa txostena eskatuko zaio eta web teknikariak gauzatuko ditu zuzenketa, Dekanordeen eta fakultateko gainerako kudeatzaileen gomendioak eta aholkuak jarraituz

Arduradun-postua: Vicedecanato de Desarrollo y Responsabilidad Social

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2021/12/20

Hartutako neurriak

UPV/EHUren Euskara Zerbitzuak HEFAren web orrialdeko euskararen egokitasunari eta zuzentasunari buruzko txostena egin du eta fakultateko Multimedia Sistemaren Teknikari Espezialistak, Euskara Zerbitzuak egindako proposamenak oinarri hartuta,

"4. Aurreko ikasturtean egindako ekintzak"

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2021/2022

6.1., Komunikazioa eta gizarte proiektzioa

aldaketak egin ditu web orrian.

PEC :	RES :	MES X	MOT	RET :	MET:
-------	-------	-------	-----	-------	------

Ekintza kodea: 21-GPEDAG-RET-34

Titulazioaren webgunea

Gomendatzen da mekanismoak ezartzea, titulazioaren web-orriaren edukia osoa dela bermatzeko, informazio garrantzitsua barne, gaur egun ikastetxearen web-orrian soilik kontsulta daitekeena. Horregatik, komeni da eduki horiek lotuta egotea, ikasleei kontsulta errazteko.

Arduradun-postua: Vicedecanato de Desarrollo y Responsabilidad Social

Jatorria: Agentzien kanpo txostenak

Itxiera data: 2022/01/25

Hartutako neurriak

Pedagogiako graduaren web-orrira kanpotik sartuz gero, web-orrian gaur egun agertzen den informazioa honakoa da: Ezagutza arloa, Ikastegia, Campusa, Harremanetarako kontaktua, Iraupena, Kreditu kopurua, Hizkuntzak, Kredituaren prezioa, Gutxieneko nota, eta eskaintako plazak. Halaber, bideo motz bat ere ikus liteke. Beraz, lotura hau dagoeneko egina dago.

Titulazioak:
GPEDAG

PEC :	RES :	MES	MOT	RET : X	MET:
-------	-------	-----	-----	---------	------

Ekintza kodea: 21-GPEDAG-RET-38

Titulazioaren webgunea. Beken informazioa

Bekei buruzko informazio gehiago webgunean argitaratzea eta Fakultateko beka-sistamarako estekak sartzea gomendatzen da.

Arduradun-postua: Vicedecanato de Desarrollo y Responsabilidad Social

Jatorria: Agentzien kanpo txostenak

Itxiera data: 2022/01/25

Hartutako neurriak

Gaur egungo fakultateko web-gunean informazio hau eskaintzen da.

Titulazioak:
GPEDAG

PEC :	RES :	MES	MOT	RET : X	MET:
-------	-------	-----	-----	---------	------

Ekintza kodea: 21-GPEDAG-RET-33

Titulazioaren webgunea. Tituluaren adierazleak

Tituluaren adierazleak erraz eskuratzeko eta zuzenean ikusteko modukoak izatea titulazioaren webgunetik gomendatzen da.

Arduradun-postua: Técnico Especialista en Sistemas Multimedia

Jatorria: Agentzien kanpo txostenak

Itxiera data: 2022/01/25

Hartutako neurriak

Web-gune berriaren planteamenduarekin erraz ikus litezke.

Titulazioak:
GPEDAG

PEC :	RES :	MES	MOT	RET : X	MET:
-------	-------	-----	-----	---------	------

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2021/2022

6.1., Komunikazioa eta gizarte proiektzioa

Ekintza kodea: 21-GPEDAG-RET-32

Unibertsitateko webguneak. Estekak eskuragarri

Ikasketa-planaren Unibertsitate, Zentro eta Tituluaren Erregistrarako, Tituluaren Kalitatea Bermatzeko Sistemarako eta araudi espezifikorako estekak eskuragarri egotea ikastetxearen zein unibertsitatearen web-orrian gomendatzen da.

Arduradun-postua: Responsables de actuaciones en comunicación

Jatorria: Agentzien kanpo txostenak

Itxiera data: 2022/01/25

Hartutako neurriak

2021eko ekaina-uztaila aldera egin den web-gune berriaren planteamenduarekin esteka hauek dagoeneko eskuragarri daude.

Titulazioak:

GPEDAG

PEC :	RES :	MES	MOT	RET : X	MET:
-------	-------	-----	-----	---------	------

6.2., Gizarte erantzukizuna

Ekintza kodea: 21-HEFA-MES-76

Elkano Fundazioarekin eta Berritzegunearekin elkarlana

Elkano Fundazioarekin eta Berritzegunearekin elkarlana hasiko dugu UPV/EHUko irakasle-ikertzaile talde batek baliabide didaktikoak sor ditzan

Arduradun-postua: Responsables de actividades de responsabilidad social

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2022/07/31

Hartutako neurriak

Lantalde sortu dugu UPV/EHUko irakasle-ikertzaileek osatua, Elkano Fundazioaren eta Berritzegunearen eskutik etorri zaigun proposamenari erantzuteko. Taldeak HEFAz gaindi jarraituko du lanean.

PEC :	RES :	MES X	MOT	RET :	MET:
-------	-------	-------	-----	-------	------

Ekintza kodea: 20-GPEDAG-MET-13

Gizartearen hobekuntza, pedagogiaren ardura: berdintasunerako hezkuntza.

Lehen eta Bigarren moduluetan Medicus Mundi-ren laguntzarekin ¿Deconstruyendo la sexualidad y el amor romántico, desde un punto de vista global¿ izeneko azpiatala garatuko da. Helburua, lehen mailan dauden ikasleak Pedagogiak daukan izaera, gizartearen hobetzearekin esku-hartzekoa dela da. Batzarrean onartu zen eta 2 moduluetak arduradunen eskutik geratu da.

Arduradun-postua: Responsables de actividades de responsabilidad social

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2022/02/04

Hartutako neurriak

Deconstruyendo la sexualidad y el amor romántico, desde un punto de vista global izeneko azpiatala garatu zen.

Titulazioak:

GPEDAG

PEC :	RES :	MES	MOT	RET :	MET: X
-------	-------	-----	-----	-------	--------

Ekintza kodea: 21-GPRIMA-MET-63

Jakintza Ikastolarekin hitzarmena

Antiguo auzoko Jakintza Ikastolarekin haurrak unibertsitatera joateko hitzarmena sinatzea proposamena egin du zentruko Elkarrizketa Ikerketa Taldeak.

Arduradun-postua: Equipo Decanal

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2022/01/11

Hartutako neurriak

Hitzarmen honek Jakintza Ikastolako haurrak (momentuz LH etapakoak) fakultatera etortzeko bidea ireki du eta gure ikasleekin tailer eta proposamen didaktiko desberdinak aurrera eramatea prestakuntza eszenatoki bezala. Elkarrizketa taldeak hitzarmen horretan Jakintza Ikastolako klastroarekin formakuntza saioak bideratu ditu 21/22 ikasturtean zehar.

Titulazioak:

GPRIMA

PEC :	RES :	MES	MOT	RET :	MET: X
-------	-------	-----	-----	-------	--------

5. Emaitzak

5.1 Prozesukako gestioaren gako emaitzak

1.- PLANGINTZA

BALORAZIOA: Prozesu honetan aipatu beharreko aldaketarik nabarmenena da Kalitate Politika eta Ildo Estrategikoak berriro direla. Berritze prozesuan fakultateak gaur egun dituen erronka estrategiko berriei eta kalitate sistemak jaso beharko lituzkeen eskakizunak jaso dira. Kalitate Politika eta Ildo estrategikoek leku berezia eskaini diote interes taldeekiko izan beharreko harremanari.

Urteko Plangintzari eta kudeaketari dagokionez ez da aparteko berrikuntzarik egin kontutan hartuz COVID-19ak baldintzatutako ikasturtea izan dela oraindik. Honek adierazten du fakultatearen funtzionamendua guztiz egonkortuta dagoela eta indarrean dagoen KBBSaren baitan jarraipen egokia egiten zaiola. Hala ere azpimarratu behar da COVID-19ak irakaskuntza ikaskuntza prozesuan eta egunerokotasunean sortu zituen behar eta baldintzak aldatu zirela eta normaltasunerako pausuak eman direla, batez ere, bigarren lauhilekoan egoera normalizatu batetik nahiko hurbil kokatuz fakultateko egunerokotasuna. Aurrez aurreko irakaskuntza guztiz bermatuta egon da eta ikasgeletako edukieretako mugak ere ohiko egoerara itzultzen hasi gara.

Azken urteetan abiatutako bidean beste pausu batzuk eman dira bi zentroetako fusioak kudeaketan sortzen dituen beharrei modu egokian erantzun ahal izateko. Ikasturte honetan pausu batzuk eman dira baina oraindik benetako zentro bakar baten funtzionamendua lortu dadin beste urrats batzuk eman beharko dira.

Aztertzen ari garen ikasturte honetan ezin izan zaio Dekanotza taldearen berrantolaketari ekin, nahiz eta zentzu horretan nabarmen nabaritu dugu horren premia. Fakultateak dituen ezaugarriak kontutan hartuz dekanota kideen kopurua ez dela nahikoa ditugun beharrei modu egokian erantzuteko. Hurrengo ikasturteetan dekanotza taldea handitu eta lanen banaketa egokiago bate gin behar dugula uste dugu.

Bestalde, etorkizunean garatu beharreko ekintzetan argi ikusten den moduan interes taldeekiko harremanaren sistematizazioan urratsak ematen jarraitu beharko da. Ikerketa eremuan zenbait pausu eman dira baina ildo estrategiko gisa identifikatu ditugu eta zentzu horretan oraindik fakultatean egiten den ikerketarekiko lanketa sakonagoa egin behar dela uste dugu.

Fakultatea osatzen duten sei graduek eta bost masterrek zaildu baina, era berean, aberastu egiten dute gure plangintza eta hauen arteko aukerak.

Gradu bakoitzak oso errealitate ezberdina bizi du eta, ondorioz, Dekanotzatik edozein plangintza edo prozedura abian jartzeko oso kontuan hartu behar dugu gradu bakoitzaren nortasuna, eta dinamika eta, beraz, bere baretik abiatuz aritu behar dugu lanean, aurrera begirako berrikuntza, planifikazio proposamenak eraikitzean.

Badira, oraindik, zenbait azpimultzo. Bata, fisikoa, elkarren ondoan ez dauden bi eraikinen bidezko antolaketak agerian erakusten duena: HEFA I eta HEFA II eraikinen artekoa eta, honekin, batean eta bestean ematen diren graduen artekoa. Bestea, Hezkuntza alorrari loturik dauden graduak (Pedagogia, Gizarte Hezkuntza, Haur Hezkuntza eta Lehen hezkuntza) eta beste biak, Antropologia eta Filosofia. Honen ondorioz, bakoitzak bere tempoa du eta hori errespetatuz bakarrik egingo da aurrera.

Gradu batzuetako matrikula emaitzek ere hausnarketa bat eskatzen dute hauen plangintzaren inguruan. Hemen, batetik, iaz ere aipatu zen bezala, erdal adarren egoera daukagu, ondo aztertu eta zer egin erabakitzea eskatzen dutenak eta, bestetik, gradu batzuetan gertatzen diren ikasle mugimenduak eta matrikula zenbakiak erakusten duten errealitatea.

Masterrei dagokienean, zentroaren kudeaketaren baitan gelditu direnez zenbait erabaki hartu behar izan dira kudeaketa sistemaren baitan agertu daitezkeen. Zentzu horretan hartutako erabakia izan da dagoeneko dauden prozeduretan txertatzea berriak sortu beharrean. Honek zenbait lan eragin ditu sistemaren antolaketan.

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2021/2022

2.- IKASLEEI ARRETA ETA ORIENTAZIOA

BALORAZIOA: Orokorrean, 2. Prozedurak, Ikasleei Arreta eta Orientazioa helburu duenak, barne hartu dituen prozesu desberdinek bere xedea bultzatu dutela esan genezake, bide desberdinetatik. Hurrengo lerroetan izendatuko ditugunak:

-Ikasleen erakartzeari dagokionez, Ate Irekien gauzatze eta bilakaera positiboa azpimarratuko dugu. Era berean, ekintza eta programa desberdinak abian jarri dira, BAT programa era pilotuan Gizarte Hezkuntza eta Pedagogiako Graduetan, eta Pentsatu! Filosofiako graduan. Aldi berean, masterren zabalkundera begira berrikuntzak txertatu dira.

-Sarrera eta matrikulazioa, HEFAko Idazkaritzaren bateratze-prozesuak hobetu du orokorrean, baina eraikuntza prozesu honek irekita jarraitzen du hobekuntzak txertatzeko.

-Ikasleari orientazio akademikoari dagokionez, orokorrean, harrera ekitaldia oso modu egokian baloratu da, hobekuntzak Ikasleen iradokizunetatik egiten ari direlarik.

-Irteera profila, lanbide orientazioa eta lan munduratzeari dagokionez, prozesu honen bilakaerak emaitza positiboak izan ditu, bai datuetan, salbuespenak-salbuespen, baita titulazioetatik aurrera ateratzen ari diren ekimenetatik.

Azkenik, prozesu hau positiboki baloratzen dugu eta abian ditugun bide desberdinek eraldaketak txertatzen jarraitzea ahalbidetuko digu Ikasleen arreta eta orientazioa hobetzeko.

3.-KOORDINAZIOA ETA IRAKASKUNTZAREN GARAPENA

BALORAZIOA: Gure fakultatearen aniztasunak koordinazio lan berezia eskatzen du eta bada hauetan zer egin. Sei gradu eta bost master eta, gainera, bi eraikin izanik, errealitateak askotarikoak dira, bakoitzaren egoerak ere bai eta, gainera, oso kultura eta jokabide ezberdinekoak dira beraien artean.

Ezaugarri bera indargune eta erronka izan daiteke eta hala gertatzen da gure prozedura askotan: Irakaskuntzaren Antolaketa, koordinazioa, GRAL, Practicum, mugikortasuna... Honek guztiak, beraz, badu sukalde lan handi bat aurreko urteetatik datorrena, fusioa gertatu zenetik, eta nabarmen sendotzen eta egituratzen ari dena.

Dena den, badira zenbait kontu zaindu beharrekoak aurrera begira. Egia da hezkuntzaren inguruko graduek zenbaki eta sendotasun handia erakusten dutela baina beste biek bestelako begirada eskatzen dute. Azken hauetan, Filosofia eta Gizarte Antropologia, jarraipena ezinbestekoa da beren garapena eta norabidea zaintzeko eta, behar izanez gero, birpentsatzeko (dagoeneko, badira zenbait ekintza norabide hau erakusten dutenak). Eta hezkuntzari lotutako graduetan, berriz, martxan diren proposamen eta proiektuei jarraipena ematea bermatu behar dugu, indartzeko eta elkarlana sustatzeko.

Azkenik, garrantzitsua da orain artean nahiko autonomo funtzionatu duten masterren arteko koordinazio egitura bat eraikitzea eta, horretan, Dekanotza honek, dagoeneko, bideratu du hau gauzatzeko prozedura eta koordinatzaile orokor bat izendatzea proposatu du, lotura hau modu sendoagoan kudeatu dadin.

Irakaskuntza Antolaketan eta fakultatearen ardatz estrategikoetan (antolaketa akademikoa hobetzea eta garatzea) ezarritako AUDIT elementuekin bat etorritik, egiaztatu da titulazioen diseinuan, jarraipenean, plangintzan, garapenean eta berrikuspenean hobekuntzak burutu dira eta aurrera begirako urratsak ere badira.

Bestetik, Derrigorrezko Kanpo-praktiken prozesua oso garai onean dago. Hainbat urteren ahalegin eta giza-baliabide talde egonkorren arduraldiari esker, irizpide, jarraibide eta kudeaketa osasuntsuaren uztak jasotzen ari gara. Gainera, aurrera begirako jarrera ireki eta berritzaileak ere gure graduak sendo egituratzen laguntzen dute. Zentzu honetan, badira zenbait egitasmo martxan: irakasgaien eta praktiken arteko uztarketa estua, Alternantziako praktiken kasu pilotoa, HEFA I eta HEFA IIren egiteko moduen integrazio osoa, Hiru Hezkuntza Fakultateen kudeaketa bateratua eta Practicum plazekiko Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza-sailaren eta Fakultatearen arteko adostasuna. Gainera, Ikasleen asebetetze maila oso altua da.

Borondatezko kanpo praktiken aukera argiago eta sistematikoago jasotzeko ahalegina egin behar dugula ikusi da, erantzuna hobea izan dadin.

Mugikortasunean, oro har, egiten den balorazioa positiboa da, bai bidaltzen den graduako ikasle kopurua dela eta, baita ikasle guztien (bidalitakoak eta jasotakoak) balorazioa kontuan hartuz. Pandemiak kalte ulergarria egin zion mugikortasunari zenbakiak gutxituz, baina ikasleen balorazio positiboekin konpentsatu egiten da. Programarik ospetsuenak Erasmus eta SICUE dira, BN programan ikasle go guxti bidali eta jasotzen dugularik. Badira zenbait proposamen eta ekintza bidean dauden eta amaituta ditugun

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2021/2022

ekintza konkretuei dagokionez, egunerokotasuneko beharretatik eta emaitzei lotuta: ENLIGHT, hitzarmen berriak, Erasmusak Masterretan, Mugikortasunerako eskuliburuak eraiki, garapanerako Lankidetzaren bidez praktikak atzerrian sustatu;

Gradu amaierako Lanen kudeaketa dela eta, emaitzak oso onak izan dira eta oso ikasle kopuru handiak burutzen baitu bere 4. Mailaren bukaeran eta, gainera, emaitza oso onekin.

Era berean, sendotasun hau orokortzeko, hiru Hezkuntza fakultateen arteko koordinazioa estutu da kudeaketa eta irizpide komunak eraikitzeko.

Azkenik, MALetako emaitzak hobetzeko asmotan, zenbait ekintza burutuko dira ikasleekin harremana estutuz.

Askotarikoa, beraz, errealitatea eta, ondorioz, askotarikoa errealitate bakoitzarekin hartu beharreko jokabide eta modua, eta horretan ari gara.

4.- GIZA BALIABIDE ETA ZERBITZUEN KUDEAKETA

BALORAZIOA:

Prozesu honen barruan kudeatzen diren prozedurak orokorrean ikasturte honetan era egokian funtzionatu dutela esan dezakegu.

Prozesu gehienak EHUko zerbitzu zentralek adierazitako irizpideen arabera kudeatzen dira eta Fakultatearen eskumena mugatua izan arren, prozesu guztiak ondo bideratu dira.

5.- EBALUAZIOA ETA HOBEKUNTZA

BALORAZIOA: Balorazio positiboa egingo genuke, oro har, prozesu honetan. Prozeduren balorazioetan esan dugun bezala, Dekanotza Taldea, bere Ildo Estrategikoak eta Kalitate Politika zehaztuta, HEFAren KBBSren inplementazioa planifikatzen, garatzen, hobetzen eta komunikatzen ahalegindu da 2021-2022 ikasturtean. Batetik, aurreko Dekanotza Taldearen eskutik jaso genuen KBBSaren diseinua, kudeaketa-beharrek hala eskatuta, hobetzen eta garatzen saiatu gara (prozedura batzuk kendu eta beste batzuk osatu egin ditugu; HEFAren dokumentu giltzarriak eguneratu egin ditugu, eta abar). Bestetik, titulazioetako koordinatzaileekin, elkarrekin, laguntza eskainiz, tituluen Jarraipen Autotxostenak osatu ditugu. Baita KBBSren barruko prozeduren eta prozesuen berreikuspena egin ere. Horrela, HEFAren Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena aterako dugu.

Horrez gain, interes taldeengandik jasotzen ditugun iradokizun, kexa eta erreklamazio guztiak kontuan hartu ditugu hobekuntza-ekintzak proposatzeko. Irakokizunen, kexen eta erreklamazioen prozedura hobetze aldera, adierazleak sortu ditugu 5.2. prozeduran eta HEFA Fakultateko webgunean formulario bat sortu dugu iradokizunak, kexak eta erreklamazioak erregistratzeko.

IIPren irakaskuntzaren ebaluazioaren prozeduran, AUDIT elementuen balorazioan esan bezala, HEFAk eta UPV/EHUK badituzte komunikazio bideak bere langile akademikoen ebaluaziori eta sustapenari buruzko informazioa interes taldeei helarazteko. Arlo hori hobetu nahian, UPV/EHUren web orrian argitaratzen diren DOCENTIAZen txostenak orokorrak direla ikusita, HEFAren web orrian fakultatearen txostena argitaratu dugu. Bestalde, HEFAko langile akademikoen ebaluazio-, sustapen-, eta errekonozimenduerduei buruzko erabakiak hartzeko bideak arautzeko eta bermatzeko mekanismoei dagokienez, HEFAtik haratagoko lekuetan hartzen dituztela nabarmendu nahi genuke.

DOCENTIAZ programari buruzko datuak aztertu ditugunean, esan dugu, urtetik urtera handituz joan dela etengabe, titulazioen bat salbuetsita, DOCENTIAZen parte hartu duten HEFAko IIPren kopurua. Edonola ere, jarraituko dugu Unibasq-en gomendioa titulazio guztietara zabaldu eta IIPak DOCENTIAZen parte har dezan sustatzen. Eta ikasleen asebetze inkesten datuei buruzko balorazioan aipatu dugu graduek eta masterrek 4tik gorako kalifikazioa jaso dutela. 2021/2022 ikasturtean eta aurreko ikasturteetako kalifikazioak ere bide berean joan ziren.

HEFAren KBBSren ezarpenaren barne ebaluazioari dagokionez, nabarmendu nahi genuke, HEFAk diseinatuta eta martxan duela bere Kalitate Politika eta kalitate-helburuak garatzeko sistema. Dekanoaren eta dekanordetza baten ardurak zuzenki lotuta daude kalitatearen kudeaketarekin, prozeduretan eta prozesuetan ere islatuta dugu kalitatearen kudeaketa eta 2021/2022 ikasturtean ahalegin berezia egin dugu HEFAren interes taldeei kalitatearekin lotutako informazioa itzultzeko kanalak hobetzeko. Web orrian

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2021/2022

Kalitatearen Kudeaketa izeneko atala sortu dugu. HEFAren KBBsren inplementazioari dagokionez, garrantzitsua da aipatzea 2022ko uztailean sistemaren Kanpo Ebaluazioa prestatzeko Barne Ebaluazioa antolatu eta burutu genuela KEIZekoen laguntzarekin.

Aurrera begira HEFAk hobetu ditzakeen alderdiak aipatze aldera, 5.1. prozedurak barne hartzen dituen AUDIT elementuen atalean esan bezala, honako hauek nabarmendu nahi genituzke:

- HEFAren formazio eskaintza ebaluatzeko, eguneratzeko eta berritzeko informazioa jasotzea eta aztertzea. Dekanotza Taldeak horrekin lotutako ikerketa proiektu bat burutzea aurreikusten du.
- Ikaskuntzaren emaitzen azterketa eta kontu ematea hobetu ditzakegula uste dugu.
- HEFAko interes taldeak zein neurritan dauden inplikaturaren dimentsioetan, inplikaturaren egoera badauden arren, uste dugu, gehiago zehaztu dezakegula inplikazio hori.
- HEFAko langile akademikoaren sarbideari eta errekonozimenduari buruzko informazioa interes taldeei itzultzeko HEFAren eta, oro har, UPV/EHUren bideak hobetu litezkeela uste dugu.

6.- KOMUNIKAZIOA ETA GIZARTE ERANTZUNKIZUNA

BALORAZIOA: HEFAren KBBsren 6.1. prozeduran nabarmendu nahi dugu 2021/2022 ikasturtean Dekanotza Taldeak HEFAren Komunikazio Plana 2021-2025 eguneratu duela. Komunikazio Planaren oinarria zehaztu ondoren, HEFAren web orriko hainbat ataletako informazioa osatzeko edo eskuragarriago jartzeko beharra ikusi genuen. Zehazki, honako atal hauek gehitzea edo osatzea erabaki genuen: Fakultatea atalaren barruan Gobernu-organoak; Kalitatearen Kudeaketa. Informazio erabilgarriaren barruan Covid-19; Gela eta Guneen erresebak. Mugikortasunaren atala. Practicumaren atala. Ikerketa eta Transferentziaren atala. Eta Albisteak. sare soziala eta ekitaldien atala

Prozeduran aipatu bezala, HEFAren Komunikazio Planean informazioa zabaltzeko kanalak aztertzerakoan, Dekanotza Taldeak erabaki zuen sare sozialen bat sortzea eta erabiltzea. Zehazki, HEFAren Twitter kontua sortu genuen. Eta HEFAren erakargarritasuna handitze aldera, fakultatearen 360º bisita birtualak gehitu genituen web orrian.

Web orriko hizkuntzaren egokitasunari buruzko hausnarketa egin ondoren, erabaki genuen, baita ere, berau hobetzeko ekintza abiatzea. Horretarako UPV/EHUko Euskara Zerbitzuari zuzenketa txostena eskatu genion eta web teknikariak gauzatu zituen zuzenketak, dekanordeen eta fakultateko gainerako kudeatzaileen errebisioak, gomendioak eta aholkuak jarraituz. Horrez gain, Unibasq-ek HEFAko titulazioen akreditazio prozesuetan aipatzen zuen gomendio bati jarraiki, fakultatearen web orriaren ingelesezko bertsioa eraiki dugu.

6.2. prozedurari dagokionez, HEFAk bere buruari ezartzen dion gizarte erantzukizunaren konpromisoari esker, unibertsitate-eremuan gizarte-errealitatearekin eta gizarte-kolektiboekin bat datorren lana egiten dugu. Helburu nagusia da zenbait ekintza garatzea, unibertsitateak gizartearekin dituen harremanak estutzeko. Zentzu horretan, HEFA honako ekintza hauek egin ditugu:

- HEFAko Dekanotza Talde berriak 2021ean ardurak bere gain hartu zituenean, zehaztutako Ildo Estrategikoetan, euskararen eta generoaren ardatzak lehentasunen artean jartzea erabaki zuen. Horrela, Berdinetasunerako Batzordea eta Euskara Batzordea osatu eta martxan jarri genituen. Euskara Batzordeak HEFAren Euskara Plana berritu zuen, 2021-2023 urte bitartean indarrean egongo dena.
- Soziolinguistika Klusterrarekin batera Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketaren zortzigarren edizioan parte hartu genuen. Neurketa haren emaitzak web orrian argitaratzea erabaki dugu.
- Hik Hasiren eta HEFAren arteko lankidetzaren formalizatzeko hitzarmena berritu dugu.
- Elkano Fundazioarekin eta Berritzegunearekin elkarlana sendotu dugu, era berean. Talde bat antolatu genuen HEFAko irakasleekin bi erakunde haiekin proiektu batean parte hartzeko.

Balorazio orokorrean, AUDIT elementuetan aipatu ditugun hobetzeko alderdiak errepikatu nahi genituzke, aurrera begira jarraipena egin diezaiegun:

- Kalitate Politika eta bere helburuak gauzatzeari buruzko informazioa zabaltzea.
- Ikaskuntza emaitzei buruzko informazioa argitaratzea.
- Laneratzeari buruzko informazioa zabaltzea.
- Langile akademikoaren sarbideari, sustapenari eta errekonozimenduari buruzko informazioa zabaltzea.
- Pertsonalaren politikaren emaitzei buruzko kontuak ematea.

5.1 Prozesuko gestioaren gako emaitzak

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2021/2022

- Interes taldeen asebetetze mailaren emaitzak argitaratzea.
- Alegazioei, erreklamazioei eta iradokizunei buruzko informazioaren berri ematea interes taldeei.
- Komunikazio Plana gehiago zehaztea eta garatzea. Beste gauza batzuen artean, HEFAko interes-taldeen iritzia jasotzea eta beraiekiko eta beraien arteko harremana gehiago sustatzea.
- Gizarte erantzukizunaren inpaktua neurtzeko mekanismoak gehiago zehaztea, baita gizarte erantzukizunaren prozedura gehiago sistematizatzea ere.

5.2 Tituluen emaitza nagusiak

GRADUAK

Gizarte Antropologiako Gradua

BALORAZIOA: Egonkortasuna da Gizarte Antropologiaren Graduaren inguruko balorazioetan gehien agertzen den kontzeptua: alderdi positiboak iraunkor mantentzen dira eta horrek adierazten du errotutako eta sendotutako Gradu bati buruz ari garela. Esaterako, irakaskuntzarekiko gogobetetze maila goi eta iraunkor mantentzen da eta titulazioan onartua izateko kalifikazioa ere igo egin da. Bestalde, irakaslearen artean seurtuko eta Docentiaz delakoaren bidez ebaluatutako kopuruek gorantzako joera iraunkorra mantentzen dute eta doktore-kopurua ere areagotu da.

Aldiz, zenbait ahultasun ere nahiko iraunkor mantentzen dira, Unibertsitatea bezalako erakunde handi eta konplexuetan aldaketak taxutzea askotan instantzia askori dagokion kontua izanik nahi baino mantsoagoa eta zailagoa izan daiteke. Esaterako, aurretik jasota genituen zenbait ekintza planei dagokienez, eskumen-kontuegatik zenbait aldaketa ezin izan ditugu guztiz garatu. Dena den, bide horretan egungo eta etorkizuneko praktikari begirako gogoeta baliagarriak egin ditugu.

Duela bi urteko kanpo agentzien akreditazioaren gomendioei eta arloan egindako gogoeta-prozesuei esker, hobetzeko alderdi desberdinak jaso dira ekintza planean eta horretan saiatuko gara datorren urteetan ere, indarguneak mantentzen eta hobekuntza alderdiei taxuz erreparatzen.

	2018/2019	2019/2020	2020/2021	2021/2022
Tituluaren okupazioa Goi mug:100.0 Beh mug:95.0	96.36	90.91	98.18	103.64
Tituluaren egokitzapena Goi mug:85.0 Beh mug:70.0	49.06	56.00	68.52	78.95
Errendimendu tasa Goi mug:90.0 Beh mug:75.0	77.65	82.31	86.74	79.55
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa) Goi mug:99.0 Beh mug:90.0	94.94	92.70	90.37	94.53
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin Goi mug:5.0 Beh mug:3.5	4.30	4.30	4.10	4.20
Sarrera ikasturtearen urtea	2014/2015	2015/2016	2016/2017	2017/2018
Graduazio tasa Goi mug:80.0 Beh mug:35.0	38.00	34.04	50.98	46.94
Ikasketen uzte tasa Goi mug:25.0 Beh mug:0.0	37.50	32.08	37.50	32.20
Año de la promoción *	2015	2016	2017	2018
Egresatuen gogobetetzea Goi mug:10.0 Beh mug:5.0	6.54	7.12	6.77	7.53
Enplegu tasa Goi mug:75.0 Beh mug:55.0	64.29	76.00	80.95	65.00

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioeko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2021/2022

Haur Hezkuntzako Gradua

BALORAZIOA: Indarguneen ataleko azken lerroan aipatu bezala, gradu sendoa da Haur Hezkuntzako, adierazleek erakusten duten moduan. Sendotasun hau urtez urte mantentzen da eta, gainera, adierazleen datuak altuak dira.

Era berean, graduaren egitura modularrak ere laguntzen du graduaren koordinazioa egituratzen eta sendotzen eta koordinazio ezberdinen arteko elkarlanak ere laguntzen du honetan.

21/22 ikasturte honetan, gainera, zenbait ekintza jarri dira martxan graduen inguruko hausnarketa sustatzeko eta hauetan eragiteko eta gure Haur Hezkuntzako graduaren kasuan,

Norabide honetan, GIHak moduluetan txertatzeko IKDi3 Laborategiak deialdiko ONDU kategorian aurkeztutako proiektua dugu martxan eta bete-betean eragingo du gure graduaren garapenean. Honez gain, Gradu bikoitza ere 23/24 ikasturtean martxan jarriko denez, bere oinarri diren bi gradu sinpleetan ere eragin zuzena izango du, bai maila akademikoan eta baita beste zenbait datutan ere. Ikusi egin beharko honetaz guztiak nola eragiten duen.

Azkenik, irakaslen profila ere, geldo bada ere, sendotzen eta egonkortzen doa graduan eta graduan duten inplikazio maila ere altua da.

	2018/2019	2019/2020	2020/2021	2021/2022
Tituluaren okupazioa Goi mug:70.0 Beh mug:45.0	100.00	102.22	101.11	102.22
Tituluaren egokitzapena Goi mug:95.0 Beh mug:85.0	88.89	90.22	94.51	96.74
Errendimendu tasa Goi mug:95.0 Beh mug:90.0	94.71	95.42	95.19	92.42
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa) Goi mug:100.0 Beh mug:90.3	96.70	99.24	98.54	99.20
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin Goi mug:5.0 Beh mug:3.5	4.10	4.10	3.90	4.10
Sarrera ikasturtearen urtea	2014/2015	2015/2016	2016/2017	2017/2018
Graduazio tasa Goi mug:95.0 Beh mug:80.0	84.13	81.36	97.18	84.62
Ikasketen uzte tasa Goi mug:12.27 Beh mug:0.0	8.49	4.12	3.42	7.07
Año de la promoción *	2015	2016	2017	2018
Egresatuen gogobetetzea Goi mug:10.0 Beh mug:5.0	6.69	7.28	7.43	7.29
Enplegu tasa Goi mug:80.0 Beh mug:60.0	63.64	82.89	81.97	92.21

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioeko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Lehen Hezkuntzako Gradua

BALORAZIOA: Pandemia ondoren lehen ikasturtea izan da egoera normalean ibili garela berriro. Pandemiak espazio berrien ornidura hobetzea ekarri du eta horrek dozentzia metodologia berriak aurrera eramateko aukera eskaintzen du. Ildo honetan bestelako espazio batzuk egokitzeko beharra ere aurreikusi eta proiektuak eskatu dira. Alderdi honetan jarraitzea funtsezkoa ikusten dugu.

Ikasturte honetan arreta berezia jarri zaio gradu bikoitzaren antolaketa berriari. Gradu bikoitzak zuzeneko inpaktua izango du LH eta HH titulazio sinpleetan eta ondorioz sailetan ere, beraz, begirunez eta behar diren pauso guztiak emateko ahalegina handia izaten ari da, proiektu hau aurrera atera dadin.

Irekiak jarraitzen duten hainbat ekintza ere badaude, horiei ere heltzeko beharra dagoelarik graduaren hobekuntza eta kalitatezko irakaskuntzaren alde. Aipatu bezala pandemiak lehentasuna beste hainbat alderdiri so egitea ekarri zuen, baina egonkortasun egoerara bueltatzen ari garela jakinda gogotsu ekin diogu graduaren kalitatea hobetzeko ekintzei.

	2018/2019	2019/2020	2020/2021	2021/2022
Tituluaren okupazioa Goi mug:100.0 Beh mug:90.0	97.78	98.33	101.11	99.44
Tituluaren egokitzapena Goi mug:95.0 Beh mug:80.0	80.11	86.44	85.71	82.12
Errendimendu tasa Goi mug:95.0 Beh mug:90.0	93.47	93.80	93.34	91.03
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa) Goi mug:100.0 Beh mug:90.0	97.81	95.98	95.17	96.24
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin Goi mug:5.0 Beh mug:3.5	4.20	4.10	4.10	4.00
Sarrera ikasturtearen urtea	2014/2015	2015/2016	2016/2017	2017/2018
Graduazio tasa Goi mug:95.0 Beh mug:80.0	85.21	84.47	79.50	83.33
Ikasketen uzte tasa Goi mug:22.05 Beh mug:0.0	7.07	4.79	10.11	8.85
Año de la promoción *	2015	2016	2017	2018
Egresatuen gogobetetzea Goi mug:10.0 Beh mug:5.0	6.71	6.46	7.48	6.66
Enplegu tasa Goi mug:80.0 Beh mug:60.0	76.42	84.92	81.00	86.18

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioiko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
 Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2021/2022

Gizarte Hezkuntzako Gradua

BALORAZIOA: Ikasleentzako eskaintzen diren plazen okupazio maila kontsolidatua dago, eta laneratze datuak ere bai ("enplegu tasa" eta "enplegu bideratua") onak dira (%90 eta %88,89 Lanbide-ko inkesten arabera).

Positiboki baloratzekoa da, baita ere Gizarte Hezitzaileen Elkargoarekin mantentzen den koordinazioa eta elkarlana, profesio edo lanbide honen indartzea izanik helburu nagusia.

	2018/2019	2019/2020	2020/2021	2021/2022
Tituluaren okupazioa Goi mug:100.0 Beh mug:95.0	100.00	105.00	101.25	100.00
Tituluaren egokitzapena Goi mug:85.0 Beh mug:70.0	68.75	73.81	72.84	81.25
Errendimendu tasa Goi mug:95.0 Beh mug:90.0	92.15	92.94	91.86	90.37
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa) Goi mug:99.0 Beh mug:90.0	97.35	97.90	97.61	98.31
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin Goi mug:5.0 Beh mug:3.5	4.20	4.10	4.20	4.20
Sarrera ikasturtearen urtea	2014/2015	2015/2016	2016/2017	2017/2018
Graduazio tasa Goi mug:90.0 Beh mug:70.0	69.70	70.91	76.71	77.05
Ikasketen uzte tasa Goi mug:10.0 Beh mug:0.0	14.74	14.58	16.87	12.50
Año de la promoción *	2015	2016	2017	2018
Egresatuen gogobetetzea Goi mug:10.0 Beh mug:5.0	6.80	6.94	6.88	6.84
Enplegu tasa Goi mug:80.0 Beh mug:60.0	90.00	87.27	95.92	89.80

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioiko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Filosofiako Gradua

BALORAZIOA: Gure ustez, hainbat gai hartu behar dira kontuan 2021/2022 ikasturtea baloratzeko orduan. Lehenik eta behin, oraindik gertu ditugu COVID-19aren pandemiak utzi dituen ondorioak. Uste dugu denbora gehiago igaro behar dela adierazle batzuk (batez ere mugikortasunarekin zerikusia dutenak) baloratu ahal izateko. Hala ere, badira nabarmen hobetu daitezkeen beste adierazle batzuk. Batez ere lehen mailako gaztelaniarazko ikasle berrien matrikula eskasa edota ikasketen uzte tasa altua. Filosofiako Graduak datu horiek azaltzen dituzten espezifikotasun batzuk baditu ere, komenigarria litzateke gogoeta egitea datu horiek hobetzen saiatzeko. Era berean, gomendagarria litzateke txosten honetan proposatu diren hobekuntza-proposamenak lantzea. Nolanahi ere, txosten honetan jasotako datuen arabera kontutan edukita, balorazio orokorra oso positiboa da gure aldetik.

	2018/2019	2019/2020	2020/2021	2021/2022
Tituluaren okupazioa Goi mug:100.0 Beh mug:95.0	96.36	125.45	107.27	100.00
Tituluaren egokitzapena Goi mug:85.0 Beh mug:70.0	92.45	86.96	94.92	85.45
Errendimendu tasa Goi mug:85.0 Beh mug:70.0	71.53	78.34	77.70	69.21
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa) Goi mug:99.0 Beh mug:90.0	93.21	88.32	89.01	93.07
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin Goi mug:5.0 Beh mug:3.5	4.20	4.20	4.20	4.20
Sarrera ikasturtearen urtea	2014/2015	2015/2016	2016/2017	2017/2018
Graduazio tasa Goi mug:80.0 Beh mug:30.0	29.79	30.61	36.17	38.60
Ikasketen uzte tasa Goi mug:30.0 Beh mug:0.0	36.54	42.11	45.45	30.30
Año de la promoción *	2015	2016	2017	2018
Egresatuen gogobetetzea Goi mug:10.0 Beh mug:5.0	7.00	7.12	7.64	8.10
Enplegu tasa Goi mug:75.0 Beh mug:55.0	70.37	74.07	52.63	90.00

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioiko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Pedagogiako Gradua

BALORAZIOA: Pedagogia Gradua txukun ari da bere funtzioa betetzen, plazak bete egiten dira, eta populazio jakin bati zuzentzen zaio. Oso ongi edo ongi lortzen duen batxilergoko ikaslea jasotzen da, gehiena euskalduna, eta emakumea. Adierazten den ekoizpena altua da, zeren epe ajustatuan ia ikasle denek titulazioa lortzen dute eta, gainera, laneratzeari buruzko datuak ere positiboak dira, nahiz eta hobetu daitezkeen.

Ikasleek irakaskuntzarekin duten asebetetze maila altua da, eta hein batean horrek bertan diharduten irakasleak ongi prestatuak daudela esan nahi du. Hala ere, irakasleen egonkortasuna auzitan dago, eta eurak duten lan-zama kontuan edukita zaila da elkarrizketarako eta hausnarketarako guneak indartzea. Izan ere jarraipen txosten honetan jasotzen diren alderdi askok halako aldeko testuinguru bat beharko lukete izan (ikasgaien arteko loturak eraikitzeko, edukien planteamendu egonkor eta sendoa plazaratzeko, lan-munduarekin loturak egiteko). Baina errealitateak esaten digu denbora tarteak zehaztea eta gai hauek hartu behar diren lasaitasunarekin hartzea zaila dela.

Oro har, Pedagogia graduaren eta profesioaren bisibilizazioa handitu egin behar dugu (ikastetxeetan, gizartean) Pedagogia izan dadin ikasleen lehenengo ikasketa aukera eta, lotuta, lehenengo mailako ikasleen uzte tasa oraindik ere gutxitu beharko genuke. Azken honetarako, eta modu esperimentalean, Berdinen Arteko Tutoretza -BAT- programarekin hasi gara lanean 2022ko ekainean. Azkenik, 4. Mailako ikasleen enplegu tasa handitzen eta enplegu bideratua indartzen lagundu behar dugu.

	2018/2019	2019/2020	2020/2021	2021/2022
Tituluaren okupazioa Goi mug:100.0 Beh mug:90.0	98.18	92.73	100.00	103.64
Tituluaren egokitzapena Goi mug:75.0 Beh mug:65.0	50.00	50.98	56.36	78.95
Errendimendu tasa Goi mug:95.0 Beh mug:90.0	91.97	92.87	94.06	92.52
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa) Goi mug:99.0 Beh mug:90.0	96.79	98.75	98.33	97.63
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin Goi mug:5.0 Beh mug:3.5	4.30	4.20	4.20	4.10
Sarrera ikasturtearen urtea	2014/2015	2015/2016	2016/2017	2017/2018
Graduazio tasa Goi mug:90.0 Beh mug:70.0	72.73	66.67	70.83	83.33
Ikasketen uzte tasa Goi mug:25.0 Beh mug:0.0	14.29	31.67	22.41	9.26
Año de la promoción *	2015	2016	2017	2018
Egresatuen gogobetetzea Goi mug:10.0 Beh mug:5.0	7.40	7.03	7.46	7.00
Enplegu tasa Goi mug:80.0 Beh mug:60.0	60.00	77.42	80.00	84.62

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioiko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

MASTERRAK

Gizarte Antropologia Unibertsitate Masterra

BALORAZIOA: Antropologia masterra unibertsitate titulu ofizial egonkorra da. Gure eskaintza erakargarria suertatzen da eta urtero masterra baldintza egokietan eskaintzeko adinako taldea osatzen da. Masterraren egiturak eta Antropologia arloko irakasle kopuruak baldintzatzen du, eskaerak berak baino gehiago, ikasle berrien kopurua. Gure kasuan eskaera eta eskaintza parekatzen saiatzen gara, moduluetan 20 ikasleko taldeak izateko.

Masterraren nazioartekotze izaera aspaldikoa da irakaskuntzari dagokionez: EHU kanpoko irakasleak ditugu edizio guztietan, horietatik gehiengo estatua espainiarretik kanpokoak. Dozentzia eta ebaluazioa masterraren hiru hizkuntzatan gauzatzen da. Ikaslegoaren nazioartekotzeari dagokionez, azpimarratzekoa da aurreko ikasturteetan bezala Hego Ameriketako ikasleak baditugula (Kolonbiarrak aurtengoan) eta aurreko berriz ere Erasmus ikasle bat (Berlingo FUKo ikaslea).

EHUK masterrak finantzatzeko bideei dagokionez, ikasturte batetik bestera eskaintzen diren moduluak desberdinak izaki, haietan parte hartzen duten irakasleak ere aldatu egiten dira. Horrek zaildu egiten du gastu aurreikuspena, urtetik urtera masterrak bere gain hartzen dituen bidaia gastuak aldatzen baitira. Azpimarratzekoa da ere masterrak EHUko irakasle eta espresuki masterrera eskola ematera etortzen diren irakasle gonbidatuez gain, masterrera gonbidatzen ditugula EHUn ikerketa egonaldiak egiten dituzten ikertzaileak edo beste finantzabide batzuen bitartez Euskal Herrian daudenak.

Ikasleekin masterraren inguruko balorazio kualitatiboan jaso dugu, halaber, masterraren irakasle hizkuntzen arteko presentzia mantentzearen garrantzia, bereziki azpimarratu eta ongi baloratu dute eskolak graduondoko mailan euskaraz jaso ahal izatea. Hau nabarmenki aipatu dute EHUn gradua egin duten ikasleek, zeinetarik gehiengoak euskaraz egin dituzten master aurreko ikasketak. Gradu formakuntza euskaraz jaso duten ikasleek euskaraz formakuntza jasotzen jarraitzeko eskaera eta Euskal Herrikan kanpo datozenentzat eduki horiek modu egokian transmititzean da gure masterraren oraindik ere erronka nagusietako bat.

	2018/2019	2019/2020	2020/2021	2021/2022
Tituluaren okupazioa				
Goi mug: Beh mug:	55.00	35.00	40.00	45.00
Tituluaren egokitzapena				
Goi mug: Beh mug:	72.73	100.00	80.00	100.00
Errendimendu tasa				
Goi mug: Beh mug:	73.91	79.07	84.38	97.40
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa)				
Goi mug: Beh mug:	100.00	100.00	90.91	93.75
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin				
Goi mug: Beh mug:			4.80	4.50
Sarrera ikasturtearen datuak				
	2016/2017	2017/2018	2018/2019	2019/2020
Ikasketen uzte tasa 1. urtean (CURSA)				
Goi mug: Beh mug:	16.67	40.00	27.27	0.00
Sarrera ikasturtearen datuak				
	2017/2018	2018/2019	2019/2020	2020/2021
Graduazio tasa				
Goi mug: Beh mug:				0.00
Sustapenaren urtea *				
	2015	2016	2017	2018
Egresatuen gogobetetzea				
Goi mug: Beh mug:		8.14	7.83	7.50

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2021/2022

Enplegu tasa		71.43	83.33	83.33
Goi mug:	Beh mug:			

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioeko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2021/2022

Filosofia, Zientzia eta Balioak Unibertsitate Masterra

BALORAZIOA: Azken urteetako masterraren funtzionamendua egokia izan da eta adierazleek ematen dituzten isla orokorra oso osasuntsua da.

Honi gehitu beharko genioke dagoeneko ebaluazio prozesu aurreratuan dagoela master programa hau, "Filosofia, Zientzia eta Balioak", ordezkatuko duen proposamen berria, "Filosofia: Zientzia, Gizartea, Teknika". Horren ondorioz, aurreikusten dugu, datorren ikasturterako (2023-2024) programa honen orde berria eskainiko dugula.

Bi faktore horien batuketak laguntzen digu ulertzen zergatik ez dugun une honetan titulu honentzako hobekuntza ekintza gehiagorik planteatzeko.

	2018/2019	2019/2020	2020/2021	2021/2022
Tituluaren okupazioa				
Goi mug: Beh mug:	36.36	63.64	81.82	40.91
Tituluaren egokitzapena				
Goi mug: Beh mug:	87.50	78.57	77.78	100.00
Errendimendu tasa				
Goi mug: Beh mug:	79.82	92.09	84.12	77.21
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa)				
Goi mug: Beh mug:	84.85	94.12	100.00	86.96
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin				
Goi mug: Beh mug:	4.20	4.50	4.30	5.00
Sarrera ikasturtearen datuak				
	2016/2017	2017/2018	2018/2019	2019/2020
Ikasketen uzte tasa 1. urtean (CURSA)				
Goi mug: Beh mug:	14.29	20.00	25.00	14.29
Sarrera ikasturtearen datuak				
	2017/2018	2018/2019	2019/2020	2020/2021
Graduazio tasa				
Goi mug: Beh mug:	75.00	71.43	81.82	88.24
Sustapenaren urtea *				
	2015	2016	2017	2018
Egresatuen gogobetetzea				
Goi mug: Beh mug:	7.60	9.00	7.67	8.00
Enplegu tasa				
Goi mug: Beh mug:	66.67	100.00		0.00

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioeko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2021/2022

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntzaren Unibertsitate Masterra

BALORAZIOA: Ikasturte honetan masterreko kudeaketa prozesuak antolatzen eta hobetzen aritu gara. Koordinatzaile taldea sendotu da, baita batzorde akademikoa ere.

Masterrean irakasle batzuk erretiroa hartu dute eta irakasle berriak sartu dira. Sartutako irakasle hauek Masterrean eskolak emateko eskakizunak betetzen dituzte. Irakasle taldearen bosturteko eta seiurteko kopurua handitu da.

Master honen indarguneek berdintsuak jarraitzen dute. Izan ere, Masterrean sartzeko eskaera asko jasotzen ditugu, errendimendu eta arrakasta tasak oso altuak dira eta irakaskuntzarekiko ikasleek duten asebetetze maila oso altua da. Hurrengo urteetan hautazko irakasgaien eskaintza berrikusteko prozesu bat martxan jartzeko asmoa dago.

Ikastetxeetako arduradunekin lan egiten jarraituko dugu eta modu horretan espero dugu hobeto ezagutzea irakasleen errealitatea. Modu horretan espero dugu irakasgaiak errealitate horretara egokitzea eta egresatuen asebetetze maila denborarekin igotzen joatea.

	2018/2019	2019/2020	2020/2021	2021/2022
Tituluaren okupazioa				
Goi mug: Beh mug:	88.64	89.02	89.77	94.32
Tituluaren egokitzapena				
Goi mug: Beh mug:	99.15	97.02	97.05	99.20
Errendimendu tasa				
Goi mug: Beh mug:	97.76	97.38	97.03	94.72
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa)				
Goi mug: Beh mug:	98.91	99.39	98.63	97.84
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin				
Goi mug: Beh mug:	3.90	3.90	4.00	4.00
Sarrera ikasturtearen datuak				
	2016/2017	2017/2018	2018/2019	2019/2020
Ikasketen uzte tasa 1. urtean (CURSA)				
Goi mug: Beh mug:	4.17	1.01	2.56	1.28
Sarrera ikasturtearen datuak				
	2017/2018	2018/2019	2019/2020	2020/2021
Graduazio tasa				
Goi mug: Beh mug:	97.83	95.77	95.58	97.38
Sustapenaren urtea *				
	2015	2016	2017	2018
Egresatuen gogobetetzea				
Goi mug: Beh mug:	6.62	6.48	6.41	6.38
Enplegu tasa				
Goi mug: Beh mug:	90.91	89.80	94.81	90.32

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
 Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2021/2022

Gizarte eta Hezkuntzako Eremuen Ikerketa Unibertsitate Masterra

BALORAZIOA: El Máster de Investigación en ámbitos socio-educativos muestra resultados satisfactorios en las tasas generales del título. Las valoraciones de los y las estudiantes son muy positivas y expresan que todas las estrategias de mentoría, docencia, tutorización y apoyo al aprendizaje dan muy buen resultado. El profesorado ha cambiado en los últimos dos-tres años pero la incorporación de nuevos docentes se ha realizado con atención y ha conseguido mantener el nivel e incluso mejorar algunas áreas temáticas que previamente no se trataban. En términos generales se continuará en esta dirección, poniendo el esfuerzo en la captación de un mayor número de estudiantes. Para ello se coordinará el trabajo con el Decanato y se intensificarán las acciones de difusión y comunicación.

	2018/2019	2019/2020	2020/2021	2021/2022
Tituluaren okupazioa				
Goi mug: Beh mug:	36.67	50.00	63.33	40.00
Tituluaren egokitzapena				
Goi mug: Beh mug:	90.91	93.33	84.21	83.33
Errendimendu tasa				
Goi mug: Beh mug:	76.56	79.93	96.95	89.29
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa)				
Goi mug: Beh mug:	96.77	100.00	96.32	98.36
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin				
Goi mug: Beh mug:	4.40	4.30	4.40	4.20
Sarrera ikasturtearen datuak				
	2016/2017	2017/2018	2018/2019	2019/2020
Ikasketen uzte tasa 1. urtean (CURSA)				
Goi mug: Beh mug:	6.67	0.00	45.45	33.33
Sarrera ikasturtearen datuak				
	2017/2018	2018/2019	2019/2020	2020/2021
Graduazio tasa				
Goi mug: Beh mug:	81.82	62.50	58.33	94.12
Sustapenaren urtea *				
	2015	2016	2017	2018
Egresatuen gogobetetzea				
Goi mug: Beh mug:	7.54	8.20	7.60	7.62
Enplegu tasa				
Goi mug: Beh mug:	64.29	80.00	100.00	87.50

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioiko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
 Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2021/2022

Eleaniztasuna eta Hezkuntza Unibertsitate Masterra

BALORAZIOA: Eleaniztasuna eta Hezkuntza masterra txukun jarraitzen ari da bere funtzioa betetzen, plazak ia bete egiten dira, ikasle kopurua mantendu egin da azken urteetan (17 aurtengo ikasturte akademikoan), arrakasta eta errendimendu tasa altua da eta laneratzeari buruzko datuak ere oso positiboak dira. Bertan diharduten irakasleak ongi prestatuak daude beharrezko akreditazioarekin eta DOCENTIAZ programan parte hartu dute (14 irakasleetatik 10) baina trantsizio momentu batean aurkitzen gara. Horregatik, datozen urteetan, plantillaren egonkortasuna handiagoa izango dela eta seiurteko eta bosturteko kopurua handituko dela aurreikusten da.

	2018/2019	2019/2020	2020/2021	2021/2022
Tituluaren okupazioa				
Goi mug: Beh mug:	68.00	56.00	68.00	68.00
Tituluaren egokitzapena				
Goi mug: Beh mug:	94.12	85.71	82.35	94.12
Errendimendu tasa				
Goi mug: Beh mug:	84.74	95.54	92.57	94.68
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa)				
Goi mug: Beh mug:	94.90	93.55	98.46	97.54
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin				
Goi mug: Beh mug:	4.10	4.50	4.10	4.30
Sarrera ikasturtearen datuak				
	2016/2017	2017/2018	2018/2019	2019/2020
Ikasketen uzte tasa 1. urtean (CURSA)				
Goi mug: Beh mug:	0.00	9.52	5.88	7.14
Sarrera ikasturtearen datuak				
	2017/2018	2018/2019	2019/2020	2020/2021
Graduazio tasa				
Goi mug: Beh mug:	82.35	88.24	100.00	94.12
Sustapenaren urtea *				
	2015	2016	2017	2018
Egresatuen gogobetetzea				
Goi mug: Beh mug:	8.25	8.00	8.15	8.83
Enplegu tasa				
Goi mug: Beh mug:	100.00	100.00	100.00	83.33

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioiko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

6. Europar Unibertsitateen ildo eta estandarren jarraipena

1. DIMENTSIOA: KALITATE POLITIKA ETA HELBURUAK

1. IRIZPIDEA. KALITATE KULTURA EZARTZEA

ikastegiak jarduera batzuk definitzen ditu eta aldiro berrikusten ditu, kalitate kultura bat garatzeko, kasuan kasuko interes taldeak inplikatur. Bere kalitate politikan eta unibertsitatearen helburu estrategikoetan oinarrituta egongo dira.

AUDIT ILDOAREN AZTERKETA 1.0. Kalitate Politika eta Helburuak

- | | |
|--|---|
| 1.1., Plangintza estrategikoa | 1.2., Urteko plangintza eta kudeaketa |
| 1.3., Dekanotza Taldearen aldaketa | 5.1., Titulazioen eta Kudeaketa Sistemaren ebaluazioa eta |
| 5.4., Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren (KBBS) ezarpenaren | 6.1., Komunikazioa eta gizarte proiektzioa |

BALORAZIOA: Plangintza estrategikoaren prozeduran aipatu beharreko aldaketarik nabarmenena da Kalitate Politika eta Ildo Estrategikoak berri egin direla. Berritze prozesuan fakultateak gaur egun dituen erronka estrategiko berriei eta kalitate sistemak jaso beharko lituzkeen eskakizunak jaso dira. Kalitate Politika eta Ildo Estrategikoek leku berezia eskaini diote interes taldeekiko izan beharreko harremanari. Harreman hauen garapenean beste pauso batzuk eman beharko direla garbi ikusten dugu. Azken urteetan abiatutako bidean beste pauso batzuk eman dira bi eraikinetako fusioak kudeaketan sortzen dituen beharrei modu egokian erantzun ahal izateko. Ikasturte honetan pauso batzuk eman dira baina oraindik benetako zentro bakar baten funtzionamendua lortu dadin beste urrats batzuk eman beharko dira. Bestalde, etorkizunean garatu beharreko ekintzetan argi ikusten den moduan, interes taldeekiko harremanaren sistematizazioan urratsak ematen jarraitu beharko da. Ikerketa eremuan zenbait pauso eman dira baina ildo estrategiko gisa identifikatu ditugu eta zentzu horretan oraindik fakultatean egiten den ikerketarekiko lanketa sakonagoa egin behar dela uste dugu.

Urteko Plangintzari eta kudeaketari dagokionez, ez da aparteko berrikuntzarik egin kontuan hartuz COVID-19ak baldintzatutako ikasturtea izan dela oraindik. Honek adierazten du fakultatearen funtzionamendua guztiz egonkortuta dagoela eta indarrean dagoen KBBSaren baitan jarraipen egokia egiten zaiola. Hala ere azpimarratu behar da COVID-19ak irakaskuntza ikaskuntza prozesuan eta egunerokoan sortu zituen behar eta baldintzak aldatu egin zirela eta normaltasunerako pausoak eman direla, batez ere, bigarren lauhilekoan egoera normalizatu batetik nahiko hurbil kokatuz fakultateko egunerokoa. Aurrez aurreko irakaskuntza guztiz bermatuta egon da eta ikasgeletako aforoetako mugak ere ohiko egoerara itzultzen hasi gara.

Dekanotza Taldearen aldaketaren prozedurari dagokionez, ez da aparteko aldaketa eta berrikuntzarik egin. Dagoeneko behar beste zehaztuta dago eta ikasturte honetan aurrez emandako dekanotza taldearen berritzea guztiz egonkortuta dagoela aipatuko genuke.

Dekanotza Taldea, bere Ildo Estrategikoak eta Kalitate Politika zehaztuta, HEFAren KBBSren inplementazioa planifikatzen, garatzen, hobetzen eta komunikatzen ahalegindu da 2021-2022 ikasturtean. Batetik, aurreko Dekanotza Taldearen eskutik jaso genuen KBBSaren diseinua, kudeaketa-beharrek hala eskatuta, hobetzen eta garatzen saiatu gara. Bestetik, titulazioetako koordinatzaileekin, elkarrekin, laguntza eskainiz, tituluen Jarraipen Autotxostenak osatu ditugu. Baita KBBSren barruko prozeduren eta prozesuen berreikuspena egin ere. Horrela, HEFAren Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena aterako dugu. KBBSren ezarpenaren barne ebaluazioari lotuta, HEFAk diseinatuta eta martxan du bere Kalitate Politika eta kalitate-helburuak garatzeko sistema. Dekanoaren eta dekanordetza baten ardurak zuzenki lotuta daude kalitatearen kudeaketarekin, prozeduretan eta prozesuetan ere islatuta dugu kalitatearen kudeaketa. Horrez gain, 2022ko uztailean HEFAren KBBSren Kanpo Ebaluazioa prestatzeko Barne Ebaluazioa antolatu eta burutu genuen KEIZekoan laguntzarekin.

Komunikazioaren arloan HEFAren web orriko hainbat ataletako informazioa osatzeko edo eskuragarriago jartzeko beharra ikusi genuen. Dimentsio honi dagokionez, honako atal hauek gehitzea edo osatzea erabaki genuen: Fakultatea atalaren barruan Gobernu-organoak; Kalitatearen Kudeaketa. Informazio erabilgarriaren barruan Covid-19. 2021/2022 ikasturtean ahalegin berezia egin dugu HEFAren interes taldeei kalitatearekin lotutako informazioa itzultzeko kanalak hobetzeko. Bestalde, AUDIT elementuetan aipatu ditugun hobetzeko alderdietan dimentsio honi dagokion bat aipatu dugu, zehazki, honako hau:

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2021/2022

1. DIMENTSIOA: KALITATE POLITIKA ETA HELBURUAK

Kalitate Politika eta bere helburuak gauzatzeari buruzko informazioa zabaltzea.

2. DIMENTSIOA. PROGRAMEN DISEINUAREN KUDEAKETA

2. IRIZPIDEA. PRESTAKUNTZA PROGRAMEN KALITATEA BERMATZEA

ikastegiak baditu bere gradu, master eta doktorego programak diseinatzeko, onartzeko eta aldiro akreditatzeko prozedura batzuk, eta bermatzen du interes taldeek haietan parte hartzea, bereziki, ikasleek. Horri esker, ikastegiak bere prestakuntza eskaintza mantentzen eta eguneratzen du.

AUDIT ILDOAREN AZTERKETA 1.1.Prestakuntza Programen Kalitatearen Bermatzea

- | | |
|---|---|
| 1.1., Plangintza estrategikoa | 1.2., Urteko plangintza eta kudeaketa |
| 1.3., Dekanotza Taldearen aldaketa | 1.4., Titulazioen plangintza eta akreditazioa |
| 1.5., Titulazioen etenaldia | 3.1., Irakaskuntzaren koordinazioa eta garapena |
| 3.2., Irakaskuntzaren antolaketa (Antolaketa Akademikoa) | 3.6., Gradu/ Master Amaierako Lanak |
| 5.1., Titulazioen eta Kudeaketa Sistemaren ebaluazioa eta | 6.1., Komunikazioa eta gizarte proiektzioa |

BALORAZIOA: Dekanotza Taldeak HEFAren Kalitate Politika eta Ildo Estrategikoak berriro ditu 2021-2022 ikasturtean. Berritze prozesuan HEFAko programen diseinuaren kudeaketarekin lotutako erronkak eta eskakizunak bildu ditugu. Urteko Plangintzari eta kudeaketari dagokionez, aurreko dimentsioan aipatu bezala, ez dugu aparteko berrikuntzarik egin. Gure ustez, fakultatearen funtzionamendua, eta horren baitan HEFAko programen diseinuaren kudeaketa, guztiz egonkortuta dago eta gure KBBSaren baitan jarraipen egokia egiteko mekanismoak ditugu martxan. HEFAko programen diseinuaren kudeaketari dagokionez ere, gauza bera esango genuke, alegia, aurreko Dekanotza Taldearengandik jaso genuen sistema behar adina zehaztuta dagoela.

Titulazioen plangintzari eta akreditazioari dagokionez, esango genuke, fakultatea osatzen duten sei graduek eta bost masterrek zaildu baina, era berean, aberastu egiten dutela gure plangintza eta hauen arteko aukerak. Gradu bakoitzak oso errealtate ezberdina bizi du eta, ondorioz, Dekanotzatik edozein plangintza edo prozedura abian jartzeko oso kontuan hartu behar dugu gradu bakoitzaren nortasuna, eta dinamika eta, beraz, bere baretik abiatuz aritu behar dugu lanean, aurrera begirako berrikuntza, planifikazio proposamenak eraikitzean. Badira, oraindik, zenbait azpimultzo. Bata, fisikoa, elkarren ondoan ez dauden bi eraikinen bidezko antolaketak agerian erakusten duena: HEFA I eta HEFA II eraikinen artekoa eta, honekin, batean eta bestean ematen diren graduen artekoa. Bestea, Hezkuntza alorrari loturik dauden graduak (Pedagogia, Gizarte Hezkuntza, Haur Hezkuntza eta Lehen hezkuntza) eta beste biak, Antropologia eta Filosofia. Honen ondorioz, bakoitzak bere tempoa du eta hori errespetatuz bakarrik egingo da aurrera.

Titulazioen etenaldiari dagokionez, ez dugu inolako aldaketarik egin eta ez dugu sumatu horretarako beharrik dagoenik ere. Beraz prozedura ongi eta zehatz definituta dago. Ikasturte honetan, gainera, ez zaigu titulazioen etenaldirik egitea tokatu.

Irakaskuntzaren koordinazioa eta garapena hurrengo dimentsioan zehaztuko dugu gehiago. Hemen azpimarratu nahi genuke, irakaskuntzaren antolaketari dagokionez, fakultatearen ardatz estrategikoetan (antolaketa akademikoa hobetzea eta garatzea) ezarritako AUDIT elementuekin bat etorritik, egiaztatuta dela titulazioen diseinuan, jarraipenean, plangintzan, garapenean eta berrikuspenean inplikaturako pertsonen egindako lana, bai eta horiei lotutako helburuak eta gaitasunak ere, erabakiak hartzea arautzen duten mekanismoen bidez egindako aldaketei eta hobekuntzei dagokienez. Egin beharreko ekintzetan ikusten den bezala, titulazioen diseinuan, jarraipenean, plangintzan, garapenean eta berrikuspenean lanean jarraitzen dugu, horien kalitatea hobetzeko helburuarekin.

Gradu/ Master Amaierako Lanak dagokienez, GRALarekin lotutako emaitzak oso onak izan dira, 4.mailan dauden ikasleentzat %87a urte horretan defendatzen dute, gainera emaitzen batzuetan bezteko notak 8tik gorakoak dira gradu guztietan. Prozedura honetan ez zeudenez adierazlerik, aztertzen ari gara zeintzuk sartu, batzuk formakuntzarako programen kalitatearekin lotutakoak eta beste batzuk ikasleentzako

2. DIMENTSIOA. PROGRAMEN DISEINUAREN KUDEAKETA

Orientazioarekin lotutakoak.

Titulazioen eta Kudeaketa Sistemaren ebaluazioa eta hobekuntzari dagokionez, hobetzekoen artean aipatu genuke honako hau: 1) HEFAren formazio eskaintza ebaluatzeko, eguneratzeko eta berritzeko informazioa jasotzea eta aztertzea (Dekanotza Taldeak horrekin lotutako ikerketa proiektu bat burutzea aurreikusten du); 2) ikaskuntzaren emaitzen azterketa eta kontu ematea hobetzea.

Komunikazioari dagokionez, programen diseinuaren kudeaketan garrantzia berezi eman diogu dimentsio honetan sartzan diren HEFAko maila guztien arteko barne komunikazioari eta koordinazioari. Kanpora begira, web orria eta sare sozialak erabili ditugu HEFAren programei buruzko informazioa zabaltzeko.

3. DIMENTSIOA. PRESTAKUNTZA PROGRAMEN IRAKASKUNTZA

3.1 IRIZPIDEA. IKASLEA ERDIGUNEAN JARTZEA

Ikasleak baditu definituta ikaslea ikaste prozesuaren erdigunean jartzeko prozedura batzuk. Prozedura horiek aintzat hartu behar dituzte sarrerako profil desberdinak eta lagun izan behar dituzte irakaskuntza modalitate eta metodologiak, tutoretza planak, ebaluazio sistemak eta bestelako baliabideak, ikasleek tituluaren espero diren emaitzak lortzea bultzatzen dituztenak.

AUDIT ILDOAREN AZTERKETA 1.2. Ikaslea Erdigunean Jartzea

1.1., Plangintza estrategikoa	1.2., Urteko plangintza eta kudeaketa
2.1., Ikasleak erakartzea	2.2., Sarrera profila eta matrikulazioa
2.3., Ikasleari orientazio akademikoa	2.4., Irteera profila, lanbide orientazioa eta lan munduratzea
3.1., Irakaskuntzaren koordinazioa eta garapena	3.2., Irakaskuntzaren antolaketa (Antolaketa Akademikoa)
3.3., Derrigorrezko kanpo praktikak	3.4., Borondatezko kanpo praktikak
3.5., Mugikortasun programak	3.6., Gradu/ Master Amaierako Lanak
4.3., Kredituen aitortzea eta transferentzia	4.4., Beken, ziurtagiriak eta tituluen kudeaketa
5.1., Titulazioen eta Kudeaketa Sistemaren ebaluazioa eta	5.2., Iradokizunak, Kexak eta Erreklamazioak
5.3., IIPren irakaskuntzaren ebaluazioa	6.1., Komunikazioa eta gizarte proiektzioa

BALORAZIOA: Prestakuntza programen irakaskuntzari lotutako erronkak ere jaso ditugu HEFAren Kalitate Politikaren eta Ildo Estrategikoen dokumentu berrituetan. Ikasleak erakartzeko asmoz, hainbat hobekuntza txertatu ditugu. Graduetako matrikulazioa bultzatzeko HEFAko web orrian graduen informazioa osatu eta berrantolatatu da. Ate Irekien eta Azokei dagokienez, lankidetzan ari direnen feed backean oinarrituz hobekuntzak txertatu dira. Masterraren zabalkundea bultzatzeko, master egunean parte hartzeaz gain graduoko ikasleei informazioa helarazi zaie eta master liburusketan berrikuntzak txertatu dira.

Sarrera profilari eta matrikulazioari dagokionez, bi idazkaritzei erantzuteko Bulegoko Buruaren figura bakarra kontatzeko zailtasuna antzeman zen. Erabaki genuen zeuden giza baliabideak arrazionalizatzeko irtenbiderik onena eraikin batean graduoko idazkaritza (Hefa II) eta bestean masterren idazkaritza (HefaI) bateratzea zela. Matrikula-prozesua berriz kokatu berri den gradu-idazkaritzarekin hasi zen, eta langile berriekin lanean hastean doikuntza bat egiten hasteko beharrek. Horregatik, azpimarratu nahi dugu prozesu honen indarguneetako bat graduoko zein masterreko idazkaritzetako langileak direla. Ikasleari orientazio akademikoa emateari dagokionez, harrera ekitaldiak, oro har, oso modu egokian balioztatu zituzten ikasleek; baita irakasleek ere. Urtetik urtera hobetzen saiatzen gara aurreko ikasturteko asebetetze inkestak emaitzak kontutan izanda.

Irteera profila, lanbide orientazioa eta lan munduratzea sustatzeko asmoz, hainbat jarduerak egin ditugu graduetan eta masterretan. Ikasleen enplegarritasunari dagokionez, bai Graduetako zein Masterretako tasak ezarritako goi mailetatik gertu daude eta ikasle egresatuak asebeste azaltzen dira. Orohar, abian jarritako ekintzen jarraipena egingo da prozesuaren emaitzetan positiboki eragin dezakeela aurrekoen baita.

Irakaskuntzaren koordinazioari eta garapenari dagokionez, gure fakultatearen aniztasunak koordinazio lan berezia eskatzen du, sei gradu eta bost master izanik. Adierazleak datuak aztertzean badira zenbait

3. DIMENTSIOA. PRESTAKUNTZA PROGRAMEN IRAKASKUNTZA

kontu zaindu beharrekoak aurrera begira. Horrela, batetik, gradu hauetan moduluek duten garrantzia eta egitura bereziki zaintzen eta indartzen ari gara, EHUn eta gizartean beren izaera ezagutzera emanez. Bestetik, gradu ezberdinak elkarrekin erlazioan jartzeko garapen ildoak pentsatu dira: gradu bikoitzak, Berezko Tituluak, eta abar.

Derrigorrezko kanpo-praktiken prozesua oso garai onean dago. Hainbat urteren ahalegin eta giza-baliabide talde egonkorraren arduraldiari esker, irizpide, jarraibide eta kudeaketa osasuntsuaren uztak jasotzen ari gara. Batzordea era sistematikoan biltzen da eta bestelako foroen parte-hartzea sustatzen du eta tresna eta egitasmo egokiak sortzen eta berrikusten ari gara. Ahultasun nagusia, Eusko Jaurlaritzaren 2019ko Dekretuaz geroztik, Fakultateak Erakunde Laguntzaileekiko ordura arteko harreman estua galdu izanagatik dator.

Borondatezko kanpo praktikekin lotutako ikasleen asebetetze maila oso altua da. Graduei dagokienez, ikasleei derrigorrezko praktiken prozedura azaltzen diegunean, borondatezko praktiken prozedura ere azaltzen diegu. Webgunean informazio guztia azalduta dago. Ekintzetan agertzen den bezala, Gizarte Antropologiako Masterrean, Graduetarako egin genuen bezala, weborria moldatu egin behar dugu kontuan hartuta informazio hori ikasleentzat dela, eta ez enpresentzat.

Mugikortasun programen ebaluazioan, oro har, balorazioa positiboa egiten dugu, bai bidaltzen den graduiko ikasle kopurua dela eta, baita ikasle guztien (bidalitakoak eta jasotakoak) balorazioa kontutan hartuz. Pandemiak kalte ulergarria egin zion mugikortasunari zenbakiak gutxituz, baina ikasleen balorazio positiboekin konpentsatu egiten da. Gainera, estrategiak bilatu ditugu sortutako hutsunean orekatzeko, beste programa batzuen bidez eta programa berriak sustatuz. Programarik ospetsuenak Erasmus eta SICUE dira, BN programan ikaslego gutxi bidali eta jasotzen dugularik.

Gradu/ Master Amaierako Lanei dagokienez, ikasleen zein irakasle berrientzako orientazioa hobetzeko ekintza batzuk martxan jarri dira. Bateratze prozesuan gaudenez martxan jartzen diren ekintza asko sistema hobetzekoak dira. Bestalde, 3 fakultateen arteko ekintza bat sortu da amankomuneko minimo batzuetara heltzeko masterrei dagokienez, ikasleekin harremanak sendotzea gomendatzen da, MAL kopuru handi bat ez aurkezteko arrazoiak aztertzea, izan ere, masterra hasi zutenetik badakite MALa 12 ECTS direla, eta ikasleei laguntzeko neurriak MALen aurkezpen ratioa handitzea.

Kredituen aitortzean eta transferentzian aitortze prozesua hobetzen goaz taulak egokitzen ditugulako eta horrek prozesua arinago izatea baimentzen digulako. Beken, ziurtagirien eta tituluen kudeaketak, aldiz, esan genezake, 2021-2022 ikasturtean era egokian funtzionatu duela. Esan behar dugu UPV/EHUko zerbitzu zentraletik emandako irizpideak jarraitu ditugula.

Titulazioen eta KBBSren ebaluazioa eta hobekuntzari dagokionez, hobetzeko alderdi gisa honako hau nabarmendu nahi genuke: HEFAko interes taldeak haren kudeaketan inplikaturik egon badauden erren, gehiago zehaztu nahi genuke zein neurritan dauden inplikaturik HEFAren prestakuntza programen diseinuan.

Komunikazioari dagokionez, garrantzia berezi eman diogu dimentsio honetan sartzen diren HEFAko maila guztien arteko barne komunikazioari eta koordinazioari. Kanpora begira, web orria eta sare sozialak erabili ditugu HEFAren programei buruzko informazioa zabaltzeko.

4. DIMENTSIOA. LANGILE AKADEMIKOEN ETA IRAKASKUNTZARI LAGUNTZEKO LANGILEEN BERMEA ETA HOBETUNTZA

3.2. IRIZPIDEA. IRAKASLEEN ETA IRAKASKUNTZAN LAGUNTZEKO LANGILEEN KALITATEA ETA HOBETUNTZA BERMATzea

ikastegiak baditu mekanismo batzuk ziurtatzeko bertako irakasleen eta irakaskuntzan laguntzen duten langileen sarbide prozesua, kudeaketa eta prestakuntza eta ebaluazio sistematikoa eta aldirokoa behar bezalako bermeekin egiten direla, haiei modua emanez beren zereginak askatasunez betetzeko, eta beren integritate akademikoa errespetatuz.

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
 Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

4. DIMENTSIOA. LANGILE AKADEMIKOEN ETA IRAKASKUNTZARI LAGUNTZEKO LANGILEEN BERMEA ETA HOBEKUNTZA

AUDIT ILDOAREN AZTERKETA 1.3.Langile akademikoek eta Irakaskuntzari Laguntzeko Langileen Bermea eta Hobetzea

1.1., Plangintza estrategikoa	1.2., Urteko plangintza eta kudeaketa
4.1., IIP/AZPren kudeaketa	4.2., IIP/AZPren formakuntza
5.1., Titulazioen eta Kudeaketa Sistemaren ebaluazioa eta	5.3., IIPren irakaskuntzaren ebaluazioa
6.1., Komunikazioa eta gizarte proiektzioa	

AUDIT ILDOAREN AZTERKETA 1.4.b.Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Kalitatea

1.1., Plangintza estrategikoa	1.2., Urteko plangintza eta kudeaketa
4.1., IIP/AZPren kudeaketa	4.2., IIP/AZPren formakuntza
5.1., Titulazioen eta Kudeaketa Sistemaren ebaluazioa eta	6.1., Komunikazioa eta gizarte proiektzioa

BALORAZIOA: IIPren irakaskuntzaren ebaluazioaren prozeduran, AUDIT elementuen balorazioan esan bezala, HEFAk eta UPV/EHUk badituzte komunikazio bideak bere langile akademikoek ebaluaziorik eta sustapenari buruzko informazioa interes taldeei helarazteko. Arlo hori hobetu nahian, UPV/EHUren web orrian argitaratzen diren DOCENTIAZen txostenak orokorrak direla ikusita, HEFAren web orrian fakultatearen txostena argitaratu dugu. Bestalde, HEFAko langile akademikoek ebaluazio-, sustapen-, eta errekonozimendu-ereduei buruzko erabakiak hartzeko bideak arautzeko eta bermatzeko mekanismoei dagokienez, HEFAtik haratagoko lekuetan hartzen dituztela nabarmendu nahi genuke.

